

NEKE ASKO ETA EZER EZ

Martxoak 10

DRAMATIS PERSONAE

Don Pedro, Príncipe de Aragón Doña Juana, su hermana bastarda. Claudio, joven noble de Florencia
Benedicto, joven noble de Padua
Leonato, gobernador de Mesina
Antonia, hermana suyo
~~Baltasar~~
Borachio, compañero de Doña Juana
Conrado, compañero de Doña Juana
Dogberry, alguacil
Verges, agente de la justicia
Fraile Franciscano
Un escribano
Hero, hija de Leonato
Beatriz, sobrina de Leonato
Margarita, doncella a la servidumbre de Hero Úrsula, doncella a la servidumbre de Hero Mensajeros, músicos, acompañamiento...

Escena: Mesina

ACTO PRIMERO Escena primera

LEONATO

(Con un papel en la mano.) Gutun honek dio Don Pedro Aragoikoa gaur gauean Mesinara iritsiko dela.

MENSAJERO

Iristear dago honezkero, banandu garenean hiru legoatara zegoen eta.

LEONATO

Zenbat gizon galdu dituzue borrokan?

MENSAJERO

Bakan batzuk, eta denak munta gutxikoak.

LEONATO

Garaipen batek balio bikoitza dauka irabazlea armada osoarekin itzultzen bada. Gutunean, Don Pedrok Claudio izeneko florentinar baten jarrera goraiatu du.

MENSAJERO

Merezitako goraipea. Claudio gazteak, itxuraz arkumea badirudi ere, leoi baten moduan borrokatu du, eta bere adinagatik espero zitekeena baino askoz gehiago eman du.

BEATRIZ

Esan, Montante jauna gudatik itzuli da?

MENSAJERO

Ez dut inor ezagutzen izen horrekin, andrea.

LEONATO

Nortaz ari zara, iloba?

HERO

Benedicto Paduakoaz ari da nire lehengusina.

MENSAJERO

Jaun hori itzuli da bai, eta beti bezain alegera.

BEATRIZ

Esan mesedez, zenbat etsai hil ditu guda honetan? Esaidazu, zeren nik hitza eman nion berak hildako guztiak errez jango nituzukeela.

LEONATO

Iloba, gogorregia zara Benedicto jaunarekin; baina berak zuri erantzuten asmatuko du, egon ziur.

MENSAJERO

Gizaseme prestua da, gudan lan eskergea egin du.

BEATRIZ

Sukaldeko soberakin guztiak jaten lagunduko zuen, seguraski; paregabeko urdaila dauka.

MENSAJERO

Eta soldadu bikaina da, andrea.

BEATRIZ

Soldadu bikaina dama baten aurrean, bai, baina zaldun baten kontra?

MENSAJERO

Zaldun baten aurrean zalduna da, gizon baten kontra, gizon.

LEONATO

Jauna, ez gaizki hartu nire ilobaren hitzak. Bera eta Benedicto jaunaren artean badago halako ingenio dema bat, eta batu orduko, elkarri zirika hasten dira.

BEATRIZ

Gure azkeneko desafioan larriki zaurituta geratu ziren bere bost zentzumenetatik lau, eta orain bakar bat geratzen zaio estropezuka ibiltzeko. Talenturik geratzen bazaio, ez dezala alferrik galdu, bere zaldiarekin konfundituko dugu bestela, gutxi falta zaiolako izaki arrazionala izateari utzi eta abere bihurtzeko. Bide batez, nor da orain bere adiskide mina? Hilabetero aldatzen duelako. Lagunekiko, modarekiko bezain leiala da; adiskidez aldatzen da kapelaz baino maizago.

MENSAJERO

Esango nuke ez daukazula jaun hori aldare batean jarrita.

BEATRIZ

Aldare hartan San Benedictoren irudirik balego, erreko nuke. Baina esaidazu, arren, zein da oraingo bere adiskidea? Bera bezalako gazte tunanteren bat?

MENSAJERO

Claudio jaun prestuaren ondoan ikusten dugu maiz.

BEATRIZ

Claudio gaixoa! Benedictok kalte egingo dio. Gripea bezain kutsagarria da. Benediktoren gaitzaz kutsatzen denak, burua galtzen du behingoan.

MENSAJERO

Zure lagunaren artean egoten saiatuko naiz, anderea.

BEATRIZ

Saiatu ezkerro, agian lortuko duzu.

LEONATO

Iloba, ez zara sekula nekatuko?

BEATRIZ

Ez, urtarrilean eguraldi beroa izan arte, behintzat.

MENSAJERO

Don Pedro dator.

(Entran Don Pedro, Doña Juana el Bastardo, Claudio, Benedicto, Baltasar y otros.)

DON PEDRO

Leonato jaun maitea, ez al zaizu astuna egingo gu zure etxean hartzea? Beste guztiek enbarazu eta gastuak sahiesten dituzte, zuk aldiz, bilatu egiten dituzu.

LEONATO

Zu gure etxean egotea ez da inoiz enbarazua izango, lana bai, baina poza ere ematen digulako, eta hemendik joaten zaren egunean, alaitasuna aldendu eta tristura geratuko da hemen.

DON PEDRO

Nekeak gogo onez hartzen dituzu, beraz. Oker ez banago, hau zure alaba da, ez?

LEONATO

Horixe errepikatzen zidan bere amak behin eta berriro.

BENEDICTO

Zalantzak zenituelako galdetzen zenion?

LEONATO

Ez dut inoiz zalantzarik izan, Benedicto jauna... Zu oraindik ume koxkor bat zinelako.

(Beatriz rie ostentosamente.)

BENEDICTO

Hara! Desprezio andere maitagarria, oraindik bizirik?

BEATRIZ

Nola liteke Desprezioa hiltzea, Don Benedicto bezelako jaki gozoarekin gizendu badaiteke?

BENEDICTO

Kontua da, zu izan ezik, andere guztiak maitemintzen direla nirekin. Baina nire bihotza nik nahi baino gogorragoa da, itxuraz, nik ez baitut inor maite.

BEATRIZ

Pozten naiz andere hoiengatik! Bestela zure kunplimendu koipetsuekin nazkatuko lirateke. Zeruari esker, neuk ere zure jarrera bera daukat. Gizon baten lausenguak jaso baino, nahiago dut nire txakurrak beleari zaunka egiten entzun.

BENEDICTO

Jainkoak bide hortan gorde zaitzala. Horrela zure atzaparrek ez dute jaun presturen baten aurpegia urratuko.

BEATRIZ

Nire atzaparrek ezingo lukete zurea bezain aurpegi gogorrik urratu.

BENEDICTO

Loro bat baino hiztunagoa zara. Baina Jainkoaren izenean, jarraitu mokoia astintzen, nahi baduzu, nik bukatu dut jada.

BEATRIZ

Betiko moduan, estutu ezker, tangentetik irteten zara. Zoaz ba, ondotxo ezagutzen zaitut.

DON PEDRO

Hitz egindakoa laburbilduko dizuet. Claudio eta Benedicto jaunak, Leonato nire adiskide onak bere etxean gonbidatu gaitu denok. Hilabete inguru geratuko garela esan diot nik, eta berak erantzun dit zinez nahiago lukeela gure egonaldia luzatuko balitz.

LEONATO

Eta ez dut itxurakeriagatik esan, bene benetan diotsuet. (*A Doña Juana.*) Permitidme que os dé la bienvenida a vos también, señor; ahora que os habéis reconciliado con el príncipe, vuestro hermano, mi deber es ser vuestro servidor.

DOÑA JUANA

Os lo agradezco. No soy hombre de muchas palabras, pero os lo agradezco.

LEONATO

Bere gorentasunak aurrena sartu nahi du?

DON PEDRO

Eman zure besoa, Leonato; elkarrekin sartuko gara.

(Salen todos menos Benedicto y Claudio.)

CLAUDIO

Benedicto, erreparatu diozu Leonato jaunaren alabari?

BENEDICTO

Ez dut arreta handirik jarri baina bai, ikusi egin dut.

CLAUDIO

Ez al da andere liluragarria?

BENEDICTO

Nola erantzun behar diot galdera horri? Gizon prestu baten erantzun zintzoa nahi duzu, ala sexu horren etsai amorratu batena nahiago?

CLAUDIO

Ez, erantzun zintzoa eskatzen dizut.

BENEDICTO

Ba orduan esango dizut ez dela laudorio galant baterako bezain dotorea; ez dela hitz diztiratsuekin lorifikatzeko bezain ilehoria; eta ez dela grinaz goraipatzeko bezain altua. Bere alde esan dezakedan bakarra zera da, bera den bezelakoa ez balitz ez litzatekeela ederra izango, baina bera den bezelakoa izanda ere, ez dut gogoko.

CLAUDIO

Txantxetan ari naizela uste duzu. Mesedez eskatzen dizut zure iritzi zintzoa emateko.

BENEDICTO

Neska erosteko asmoa duzu, hainbeste kontu jakiteko irrikitan zaudelarik?

CLAUDIO

Uste al duzu munduko urre guztiarekin eros litekeela horrelako harribitxi bat?

BENEDICTO

Bai horixe, eta baita harribitxia gordeta edukitzeko kutxatila bat, giltza eta guzti. Baina, benetan ari zara?

CLAUDIO

Nire begiek sekula ikusi duten damarik xarmangarriena dela uste dut.

BENEDICTO

Betaurrekoak behar ditut, antza denez, ez bait diot inon ere holako xarmarik aurkitzen. Bere lehengusina bera ederragoa da, ez balitz barruan daraman deabruagatik. Baina benetan Herorekin ezkontzeko asmorik duzu?

CLAUDIO

Ezetz esango banizu, gezurra esango nuke.

BENEDICTO

Jainkoarren! Hirurogei urteko gizon ezkongaberik ez al dut sekula ikusiko?

(Entra Don Pedro.)

DON PEDRO

Hara, isilpeko ze kontu darabilzue, Leonatoren etxean sartu ez zaretelarik?

BENEDICTO

Bere gorentasunak esatera behartuko banindu, gustora obedituko nuke.

DON PEDRO

Nire menpekoea zarenez, esatera behartzen zaitut.

BENEDICTO

Entzun duzu, Claudio; hilobi baten moduan gorde dezaket nik sekretua, egon zaitez ziur, baina nire jaunari zor diodan fideltasunagatik -eta soilik fideltasunagatik-, aitortu beharko dut: maiteminduta dago! Norekin? Hori da orain bere gorentasunak galdetu behar didana... Ea... Galdetu ezazu... Erantzuna erreza da: Claudio Herorekin maiteminduta dago, Leonatoren alabarekin.

CLAUDIO

Hala balitz, esan egingo nuke.

DON PEDRO

Claudio, maite baduzu esan beldurrik gabe, damak hainbeste merezi du eta.

CLAUDIO

Hori nire mingaina askatzearren diostazu?

DON PEDRO

Nire ohoreagatik, pentsatzen dudana esan dut.

BENEDICTO

Neuk ere esan dut pentsatzen dudana.

CLAUDIO

Nik... maite dut.

DON PEDRO

Eta nik badakit berak maitasun hori merezi duela.

BENEDICTO

Ba nik ez dakit zergatik maitatu behar duzun eta ez dakit merezi duen. Hauxe da nire eritzia, eta urkamendira eramaten banaute ere, gauza bera pentsatzen jarraituko dut.

DON PEDRO

Beti tematu zara zu edertasuna gutxiesten.

CLAUDIO

Benetan sentitzen duena ezkututzen ahalegindu da beti.

BENEDICTO

Emakume batek mundura ekarri ninduen, mila esker berari; hazi egin ninduen, apaltasuez eskertzen diot hori ere. Hala ere, barka diezadatela emakumeek, baina nik ez dut adardun bihurtu nahi. Eta itsusia iruditzen zaidanez andere bakar bat arbuiatzea, denak arbuiatzeko erabakia hartu dut. Horregatik, ezkongabe jarraitzea erabakirik argiena dela uste dut.

DON PEDRO

Amodioz gaixo ikusiko zaitut nik, hil aurretik.

BENEDICTO

Baliteke, jauna, ni goseak edo gripeak gaixotzea, baina ez maitasunak. Inoiz frogatzen badidazu maitasunak kendu didala ardoarekin berreskuratu daitekeena baino odol gehiago, urkatu nazatela zuhaitz batetik, Cupidoz mozorroturik.

DON PEDRO

“Denborarekin, zezen basatiari uztarria jartzen zaio.”

BENEDICTO

Zezen basatiari baliteke, baina Benedicto zentzudunak amore emango balu, erauzi adarrak zezenari eta iltzatu nire bekokian; eta gero pintore batek erretratua egin diezadala, eta idatzi dezala letra handiekin: “Benedicto duzue hemen, ezkondua orain, zorionsua lehen”.

DON PEDRO

Ba Cupidok bere geziak agortu ez baditu, laster hasiko zara zu dardarka. Ez duzu ihes egiterik izango.

BENEDICTO

Lehenago hasiko da Lurra dardarka.

DON PEDRO

Ikusiko dugu. Momentuz, Benedicto jaun ona, sar zaitez mesedez Leonatoren etxean eta esaiozu ez duzula huts egingo gaur gaueko afarira, arreta handiz prestatzen ari baita.

BENEDICTO

Mandatu hori betetzeko gauza naizela uste dut.

(Sale.)

CLAUDIO

Bere gorentasunak orain mesede bat egingo al dit.

DON PEDRO

Zureganako dudan estimuagatik, zure esanetara nago, esan bada zer egin dezakedan zure mesedetan.

CLAUDIO

Herori buruz ari ginen lehen...

DON PEDRO

Baina, benetan maite duzu, Claudio?

CLAUDIO

Oh, jauna! Guda honetara abiatu aurretik, odola irakiten zitzaidan bera ikusi orduko. Baina orduan betebeharrak bat neukan, ezin nuen maitasunarekin amets egin. Orain itzuli naiz eta Hero gaztearen edertasunean pentsatzen jarrita, nire bihotza gogo eta desio xamurrez betetzen da; gudara joan baino lehen nire bihotzean kabia egindako maitasuna, bularraren barruan kabitu ezinda, lehertzearekin dago, Etna sumendiaren pare.

DON PEDRO

Maiteminduta zaude, zalantzarik gabe, liburu batetik aterata dirudien erretolikarekin aspertzen nauzu eta. Kontua da maite duzula, eta nik laguntza eskeiniko dizut. Jakin dudanez, gaur maskara dantzaldi bat ospatuko da. Maskara jantzita joango naiz festara, eta Hero ederrari Claudio naizela esango diot. Bere bularra dardaraziko dut nire bihotzeko grinarekin, eta bere belarria txundituko dut nire mingainetik irtendako hitz gozoezin. Jarraian, bere aitarekin hitz egingo dut eta, bukatzeko, Hero zurea izango da. Zer deritzozu? Egin dezagun pentsatu duguna. (*Salen.*)

Escena segunda

LEONATO

Nola? Zu hemen, arreba?

ANTONIA

Berri harrigarri bat eman behar dizut, ametsetan ere imajinatuko ez zenukeena.

LEONATO

Berri ona da?

ANTONIA

Baietz esango nuke. Nire lorazain batek entzun omen du Don Pedrok Claudiori esaten ziola zure alabarekin, nire ilobarekin, maiteminduta dagoela...

LEONATO: ¿Don Pedro printzek Hero maite du?

ANTONIA: Hala dirudi. Eta, antza denez, gaur gaueko dantzaldian berari aitortzeko asmoa du. Eta zure alabak baietz esatekotan, gaur gauean bertan zuri jakinaraziko omen dizu.

LEONATO

Fida naiteke hori kontatu dizun lorazainaz?

ANTONIA

Mutil bikaina da, eta ganorazkoa. Esango diot etortzeko, eta zuk galdetuko diozu.

LEONATO

Ez, ez; joka dezagun hau fantasia bat balitz bezela, berez argitu arte. Hala ere, nire alaba jakinaren gainean jarri nahi dut, erantzuna prest eduki dezan, printzipeak bere maitasuna aitortzen badio ere. Onena zuk zeuk esatea litzateke. (*Cruzan la sala varias personas, músicos. A los músicos.*) Barkatu, eta zatozte nirekin, zuen talentuaren beharra daukat. Lagundu prestaketekin. (*Salen.*)

Escena tercera

Otra sala de la casa de Leonato.

Entran Doña Juana y Borachio.

CONRADO

Señor... ¿Qué os pasa que estáis tan triste?

DOÑA JUANA

La causa de mi tristeza es tan grande que mi pena no tiene medida.

CONRADO

Es preciso escuchar la voz de la razón.

DOÑA JUANA

Aunque yo la escuchara, ¿qué bienes me proporcionaría?

CONRADO

Si no un bien inmediato, por lo menos os procuraría el remedio de la paciencia.

DOÑA JUANA

Yo no puedo ocultar lo que soy. Si tengo motivo para estar triste, no hay broma que me haga sonreír. Si tengo apetito, como sin esperar a mis invitados. Si me acosa el sueño, me acuesto sin importarme los demás. Y si da la casualidad de que estoy alegre, suelto carcajadas aunque esté en un funeral

CONRADO

Sí, pero mientras no podáis dominaros, no debierais mostraros tal como sois. Hace poco que os levantasteis contra vuestro hermano, y él os perdonó. ¿Cómo podréis echar hondas raíces en el campo de su amistad si no la cultiváis? Para recoger buena cosecha hay que saber esperar la estación propicia.

DOÑA JUANA

Preferiría ser un gusano en un zarzal a convertirme en rosa por gracia de mi hermano. A mi temperamento le cuadra más ser despreciado por todos que disimular para obtener las migajas de su afecto.

CONRADO

No puedo negar que sois sincera.

DOÑA JUANA

Pues déjame ser como soy y no me des sermones.

(Entra Borachio.)

BORACHIO

He cenado allá dentro con la opulencia de un gran señor. El príncipe, vuestro hermano, está siendo festejado por Leonato con la dignidad de la realeza, y tengo una primicia: se proyecta un casamiento.

DOÑA JUANA

¿Quién es el insensato que se desposa voluntariamente?

BORACHIO

Por Dios... Pues el brazo derecho de vuestro hermano.

DOÑA JUANA

¿Quién? ¿El magnífico Claudio?

BORACHIO

El mismo. Ha puesto los ojos en Hero.

CONRADO

Buen partido. Hija y única heredera de Leonato.

DOÑA JUANA

¿Y cómo lo habéis sabido?

BORACHIO

Vi que el príncipe y Claudio susurraban y me las arreglé para oír lo que decían. Acordaron que el príncipe haría la corte a Hero como si fuera para sí mismo, pero que luego, cuando la hubiera conquistado, la cedería al conde Claudio.

DOÑA JUANA

Ese Claudio se ha llevado la gloria de mi caída. Si yo pudiera poner obstáculos en su camino, todos los míos me parecerían más soportables. ¿Puedo contar con vosotros dos?

CONRADO

Sí, señor.

BORACHIO

Hasta la muerte.

DOÑA JUANA

Vamos a ver cómo es esa cena.

(Salen.)

ACTO SEGUNDO

Escena primera

BEATRIZ

Erreminduta dago emakume hori. Ezin diot begiratu urdaila nahastu gabe.

HERO

Bai, beti egoten da goibeldurik.

ANTONIA

(A Hero.) Iloba, zure aitaren aholkuak jarraituko dituzulakoan nago.

BEATRIZ

Dudarik gabe. Nire lehengusinarene betebeharra da apaltasunez makurtu eta esatea: “Zuri laket zaizuna egingo dut, aita.” Baina mutila itxura onekoa ez bada, beste erreberentzia egin eta esan ezazu: “Aita, niri laket zaidana egingo dut.”

LEONATO

Iloba, egunen batean senar on batekin ikusiko zaitut

BEATRIZ

Hori akaso gerta zitekeen Jainoak gizona buztinetik sortu ez balu. Gogaikarria da emakume batentzat, buztin eskukada batez egin dagoen gizonaren menpe egon beharra, kontuak eman beharra. Ez, osaba, ez; nik ez dut ezkondu nahi.

LEONATO

Iloba, beti begiratzen diozu alde txarrari.

BEATRIZ

Ikusmen ona daukat, osaba. Egun argiz, eliza bat antzemateko gauza naiz.

LEONATO

(A Hero.) Ene alaba, gogoratu esan dudana: Don Pedro printzeak proposamenik egiten badizu, badakizu zer erantzun behar duzun. Badatoz maskaradunak.

(Entran Don Pedro, Claudio, Benedicto, Doña Juana, Borachio y otros.)

DON PEDRO

(A Hero.) Anderea, eman nahi duzu paseo bat?

HERO

Paseokidea adeitusa bada, eta astiro eta isilik ibiltzen bada, gusto handiz aterako naiz paseoan.

DON PEDRO

Zurekin eramango nindukezu?

HERO

Esango dizut, komeni zaidanean.

DON PEDRO

Eta noiz komeniko zaizu?

HERO

Zure aurpegia atsegina dela ikusten dudanean; ez nuke nahi barruko almendra azala bezain gogorra izaterik.

DON PEDRO

Maskara honen azpian almendra goxo bat aurkituko duzu.

HERO

Zenbateraino goxoa?

DON PEDRO

Hori ikusi beharko da.

HERO y DON PEDRO van hacia un lado.

BORACHIO

(A Margarita.) Quisiera gustaros.

MARGARITA

No, por vuestro bien. Estoy llena de defectos.

BORACHIO

Decidme uno.

MARGARITA

Tengo la mala costumbre de rezar en voz alta.

BORACHIO

Tanto mejor para amaros. Porque a todo lo que digáis, podré decir amén.

MARGARITA

Dios me dé un compañero para bailar.

BORACHIO Amen.

MARGARITA

Y que Dios lo aparte de mis ojos cuando termine el baile. Responded, sacristán.

BORACHIO

Vamos a rezar juntos.

(Se alejan.)

ÚRSULA

Ezagutu zaitut; Conrado jauna zara zu.

CONRADO

Ez. Ez naiz, ba.

ÚRSULA

Zure mugitzeko moduagatik ezagutu zaitut.

CONRADO

Horrela mugitzen naiz, bere plantak egiten ari naizelako.

ÚRSULA

Ondoegi imitatzen duzu, bera ez bazara. Zure azakalen ugerra dakusat... Conrado jauna zara.

CONRADO

Ez naizela esan dizut ba; nire hitza duzu.

ÚRSULA

Tira, zure hitz egiteko moduagatik ezagutu zaitut, zer uste duzu? Eta keinuengatik, eta sinpatiagatik. Argi daukat bera zarela.

(Se alejan.)

BEATRIZ

(A Benedicto.) Ezin didazu esan nork kontatu dizun?

BENEDICTO

Ez, eta barkaidazu, mesedez.

BEATRIZ

Nor zaren ere ezin didazu esan?

BENEDICTO

Ez, oraingoz ez.

BEATRIZ

Zuhurra zara, benetan. Beraz, mespretxatzailea naiz eta nire txisterik barregarrienak liburuetatik ateratzen ditut? Hori Benedicto jaunak kontatuko zizun.

BENEDICTO

Nor da Benedicto hori?

BEATRIZ

Ziur naiz ondo baino hobeto ezagutzen duzula.

BENEDICTO

Inondik ere ez. Sinistuidazu.

BEATRIZ

Ez dizu inoiz barregin arazi?

BENEDICTO

Mesedez, nori buruz ari zara?

BEATRIZ

Nori buruz? Printzearen bufoiari buruz. Gezur beltzak asmatzea beste doairik ez duen zoro ergelari buruz. Tunante lotsagabeekin soilik moldatzen da ondo, eta grazia ez, baizik eta zabarkeria da bere ezaugarria, eta lagun horiek entretenitzen baditu, azkenean nekatu egiten dira, eta jipoika hartu eta burla egiten diote. Ziur naiz bazterrak nahasten ibiliko dela hortik. Nigana hurbiltzeko ausardia izango al du!

BENEDICTO

Jaun hori ezagutzeko aukerarik badut, kontatuko diot esan didazuna.

BEATRIZ

Kontatu, kontatu. Baliteke nire kontrako petralkeriaren bat esaten ausartzea. Eta ziri horiekin entzulegoak barre egiten ez badu, goibeldu egingo da, eta ez du afaldu nahi izango. Baina ez dio inporta; horrela afariaren errazio bat aurreztuko dugu. *(Suena la música.)* Goazen hoiekin, ez ditzagun galdu.

(Sigue la danza, y van saliendo todos, menos Doña Juana, Borachio y Claudio.)

DOÑA JUANA

Si no supiera lo que sé, diría que mi hermanastro se ha enamorado de Hero, y se ha llevado aparte a su padre para decírselo. Las damas se han ido con ella, pero aquí se ha quedado uno que sigue con la careta puesta.

BORACHIO

Y este enmascarado es Claudio; le conozco por sus ademanes.

DOÑA JUANA

¿No sois vos el señor Benedicto?

CLAUDIO

Me habéis conocido; soy Benedicto.

DOÑA JUANA

Mi hermano os tiene en mucho aprecio, y como está enamorado de Hero, yo os ruego que se lo quitéis de la cabeza. Esa mujer no es de cuna igual a la suya, no es digna de él. Si hacéis eso demostraréis la amistad que le profesáis.

CLAUDIO

¿Cómo sabéis que la ama?

DOÑA JUANA

He oído cómo le hacía juramentos de amor.

BORACHIO

Yo también lo he oído.

CONRADO

Yo le oí jurar que esta misma noche la haría su esposa.

DOÑA JUANA

Venid; volvamos al banquete.

(Doña Juana y Borachio salen.)

CLAUDIO

Benedictoren itxurak egiten erantzun dut, baina berri txarra Claudioren belarriak jaso du. Argi dago, Don Pedrok berarentzat nahi du. Amodio kontuetan ez genuke inoiz konplizerik onartu behar; edertasuna sorgin bat baita, laguna traidore bihurtzen duena. Egunero gertatzen da hori, eta ni ez naiz konturatu. Bukatu da! Agur, Hero!

(Entra Benedicto.)

BENEDICTO

Klaudio kontea zara?

CLAUDIO

Bai, neu naiz.

BENEDICTO

Etorriko zara nirekin?

CLAUDIO

Nora?

BENEDICTO

Hemendik urrun, zure lotsa ezkutatzeko modua bilatzera. Printzeak zure Hero beretzat hartu du.

CLAUDIO

Bejondeiola.

BENEDICTO

Horrela kentzen du paretik nekazariak esnerik ematen ez duen behia. Imaginatzen zenuen Printzeak txakurkeria hori egingo zuenik?

CLAUDIO

Mesedez, utzi bakarrik.

BENEDICTO

Ez naiz ni umiliatu zaituena.

CLAUDIO

Ez banauzu bakarrik utzi nahi, banoa ni.

(Sale.)

BENEDICTO

Txori zauritu gaixoa... Orain belar gainean etzango da... Baina zertan ote dabil Beatriz hortik esanez printzearen bufoia naizela? Agian alai naizelako. Baina horrek esan nahi du nire kontura barre egiten dutela. Beatriz makur hori nire izena zikintzen ari da. Ongi da, mendekua hartuko dut.
(Entran Don Pedro, Leonato y Hero.)

DON PEDRO

Esan, jauna, non dago Claudio? Ikusi al duzu?

BENEDICTO

Esan diot, eta gezurrik ez dudala esan uste dut, Bere Gorentasunak damatxo horren maitasuna erdietsi duela, eta orain Claudiok bere tristura bakardadean mamurtu, besterik ez du nahi.

DON PEDRO

Baina nola liteke?

BENEDICTO

Egundoko dorpeziaz jokatu du. Eskola mutil inuxente baten moduan, ikaskide bati berak aurkitutako txoritxoan kabia erakusten dionean. Ikaskideak, jakina, kendu egin dio.

DON PEDRO

Nire iritzian konfiantzaz jokatu du eta ez dorpeziaz.

BENEDICTO

Zuk kabia eta txoria lapurtu dizkiozu.

DON PEDRO

Kantatzen erakusti besterik ez diot egin; orain bere jabeari itzuliko diot.

(Hero rie.)

BENEDICTO

Bere kantatzeko moduagatik, zure hitzak zintzoak direla ematen du.

DON PEDRO

Aldiz, Beatriz anderea zutaz kexuka ari da. Jaun batekin dantzan aritu da eta gaizki tratatzen duzula aitortu dio.

BENEDICTO

Oh, ez, ez! Bera da ni gaizki tratatzen nauena. Hizketan egon garenean hainbeste amorratu nau ze, maskara azpian sutan zeuden nire masailak. Eta berak, norekin ari zela jakin gabe, printzearen bufoia naizela esan dit. Ziri mordoia jaurti dit izugarrizko maleziaz, armada oso baten gezien jomuga nintzela zirudien. Bere arnasak bere hitzek gordetzen duten pozoia izango balu, ezinezkoa litzateke bere ondoan bizitzea, dena kutsatuko lukeelako; artizarra ere pozoituko luke. Munduko urre guztiaren truke ere ez nuke nahi emaztetzat. Ez gehiago hitz egin andere horretaz.

(Entran Claudio y Beatriz.)

DON PEDRO

Begira, handik dator.

BENEDICTO

Mesedez, ezin nau Bere Gorentasunak munduko azken bazterreraino bidali, mandaturen bat betetzera? Gusto handiz joango nintzateke orain antipodetara zotz baten bila, arpia horren aurrean egon beharrean. Esaidazu, ez al daukazu niretzako agindurik?

DON PEDRO

Nik, ordea, zure laguntza atseginaz gozaten jarraitu nahi dut.

BENEDICTO

Barkaidazu, jauna... Baina lotsagabe horrekin ezin dut. (*Sale.*)

BEATRIZ

Claudoren bila joateko eskatu didazu eta hemen duzu.

DON PEDRO

Zer duzu orain, kontea? Zergatik zaude goibel?

CLAUDIO

Ez nago goibel, Jauna.

DON PEDRO

Zer, orduan? Gaixo?

CLAUDIO

Gaixo ere ez, Jauna.

DON PEDRO Mozkor?

BEATRIZ

Kontea ez dago goibel, ez gaixo, ezta mozkor ere. Gizaki sentibera da, zu eta Hero ederraren artean gertatzen ari denagatik zalantzan eta beldurrez dagoena.

DON PEDRO

Anderea, horrela bada, bere susmoa funtsik gabea dela ziurtatu dezaket. Eta honekin esan nahi dizut Hero ederra gorteiatu badut, zure izenean izan dela, eta zuretzat. Eta helburua lortu dut, bere aitarekin hitz egin dudalako, eta aita zure nahiarekin ados dago. Zehaztu, bada, ezkontza eguna eta... Jainkoak eman diezazula merezi duzun zoriona.

LEONATO

Kontea, nire alaba eskeintzen dizut, eta berarekin batera nire ondasuna. Printzearen graziak ezkontza bideratu du.

BEATRIZ

Kontea, zer erantzun behar duzu?

CLAUDIO

Isiltasuna da poztasunaren mezularirik onena, alaitasunak betetzen gaituenean ez baitugu hitzez adierazteko modurik aurkitzen. Anderea, zu nirea bazara, ni zurea naiz, neure burua eskeintzen dizut, eta trukean irabaziko dudalakoan nago.

BEATRIZ

Orain zu zara, lehengusina, hitz egin behar duena, eta ezin baduzu, itxi ezazu bere ahoa musu batekin, eta horrela bera ere isilduko da.

DON PEDRO

Argi dago, anderea, poza bihotzaren barruraino sartu zaizula.

BEATRIZ

Hala da, jauna. Claudio gaixoa burua galtzear dago, ez daki zer gertatzen zaion. Nire lehengusinak belarrira aitortu dio bihotzean gordeta zeramana.

CLAUDIO

Horixe bera da esan didana, lehengusina.

BEATRIZ

Ai ene Jainkoa... orain senitartekoak gara! Hemen denak ezkontzen dira, ni izan ezik. Bazter batean eseri eta esan beharko dut: "Eh! Ongi da, senar bat nahi dut!"

DON PEDRO

Beatriz andrea, neuk bilatuko dizut.

BEATRIZ

Ez al dauka Bere Gorentasunak bere antza duen anaiarik?

DON PEDRO

Nik neuk ez dut horretarako balio?

BEATRIZ

Ez jauna; lanegunetarako beste senar bat beharko nuke kasu hartan. Bere Gorentasuna luxu handiegia da egunero eramateko. Baina mesedez, ez aintzat hartu esan dudana, jauna, ni alai egoteko eta huskeriak esateko jaio nintzen.

DON PEDRO

On egiten dizu alaitasunak. Dударik gabe ordu zoriontsu batean jaio zinen.

BEATRIZ

Ez, jauna, nire amak garraxika erditu ninduen. Baina une hartan izar bat zegoen zeruan dantzan, eta ni bere eraginpean etorri nintzen mundura. Jainkoak zoriona eman diezazuela, lehengusuak!

LEONATO

Iloba, aintzat hartuko duzu esandakoa?

BEATRIZ

Barkatu, osaba. (*A Don Pedro.*) Berorren baimenarekin. (*Sale.*)

DON PEDRO

Egia esan, dama alai eta irrifartsua da.

LEONATO

Tristurak edo buruhausteen ez dute abailduko emakume hori. Lotan dagoenean soilik jartzen da serio, nire ustez, eta ez beti, alabari entzun bait diot askotan zoritxarrekin amets egin eta barre algaraka esnatzen dela.

DON PEDRO

Baina ezin du jasan senar hartzeari buruz hitz egitea.

LEONATO

Oh! Inola ere ez. Senargai guztien kontura barre egiten du, eta denak arbuiatzen ditu.

DON PEDRO

Benedictorentzat emazte bikaina litzateke, ordea.

LEONATO

Jainkoarren! Zer diozu? Ezkonduta baleude, aste bakar batean erotuko lirateke, gehiegizko berriketagatik.

DON PEDRO

Eta zuk, Claudio kontea, pentsatu duzu noiz joango zaren elizara?

CLAUDIO

Bihar bertan, jauna. Ordurarte denborak marraskiloaren abiadura duela irudituko zait.

LEONATO

Ezkontza ezingo da astelehena baino lehen ospatu, lagun maitea.

CLAUDIO ETA HERO

Astebete barru?

LEONATO

Eta hala ere, tarte laburra izango da, gauzak nik nahi dudan moduan atondu ahal izateko.

DON PEDRO

Burua astintzen duzue, tarte luzeegia iruditzen zaizuelako baina egon ziur ez zaigula astuna egingo. Egun hauetan erronka ia ezinezko bati egin nahi diot aurre: Benedicto eta Beatrizen artean, elgarrenganako maitasuna sentiaraztea, mendirik altuenaren tamaninuko maitasuna. Ezkonduta ikusi nahi ditut, eta lortuko dudalakoan nago, denek laguntzen badidazue burutu dudan planarekin.

LEONATO

Zure alde nago, kosta ala kosta, hamar gauez esna egon behar badut ere.

CLAUDIO

Baita neu ere, jauna.

DON PEDRO

Zure laguntza izango dut, Hero ederra?

HERO

Nire indar apalaz egin dezakedan guztia egingo dut nire lehengusinak senar on bat aurkitu dezan.

DON PEDRO

Nire asmoa betetzen bada, Cupidok arkulari trebearen aintza galduko du, eta bere ospea guretzat izango da, gu geu izango garelako maitasunaren jainkoak eta ez beste inor. *(Salen.)*

Escena segunda

DOÑA JUANA

Finalmente el conde Claudio se casará con la hija de Leonato.

BORACHIO

Sí, señor, pero yo puedo impedir esa boda.

DOÑA JUANA

Toda barrera, todo obstáculo, todo impedimento será un bálsamo para mi herida. No soporto a ese hombre, y todo lo que impida sus deseos cumplirá los míos. ¿Qué puedes hacer tú para evitar ese matrimonio?

BORACHIO

No será muy noble lo que haga, señora, pero será tan secreto que nadie podrá acusarme.

DOÑA JUANA

Dime lo que te propones.

BORACHIO

Creo que sabéis que desde el baile gozo de los favores de Margarita, la doncella de Hero.

DOÑA JUANA

Sí, ¿y qué?

BORACHIO

Puedo engatusarla para que ella y yo tengamos uno de nuestros encuentros en el cuarto de la mismísima Hero.

DOÑA JUANA

Con eso no veo los motivos para impedir la boda.

BORACHIO

Los motivos, como el veneno, los pondréis vos a vuestro gusto. Diréis a vuestro hermano, el príncipe, que es poco digno de él empujar al matrimonio a un hombre tan noble como Claudio, con una pervertida como Hero.

DOÑA JUANA

¿Pervertida?

BORACHIO

Insinúa, tanto al príncipe como a Claudio, que Hero es mi amante. Como ellos no lo creerán sin tener pruebas, decidles que podrán verme de noche saliendo a hurtadillas de la ventana de su habitación. Ellos verán que me despido amorosamente de Hero, (que en verdad será Margarita, a quien habré convencido para que se pruebe ropas de su señora). Y si os parece, podéis elegir para que vean esta escena, la noche anterior a la boda. Durante estos días, yo lo prepararé todo para que,

en el momento del engaño, Hero esté ausente. La deslealtad de la prometida será tan evidente a los ojos de Claudio y el príncipe, que se vendrá abajo todo lo convenido.

DOÑA JUANA

Cualquiera que sea el resultado de lo que te propones quiero ponerlo en práctica. Procede con cautela en tus propósitos y te prometo una recompensa de mil ducados.

BORACHIO

Mostraos vos firme en vuestra acusación, que mi astucia no me avergonzará.

DOÑA JUANA

Ahora necesito saber el día de la boda. Me informaré. *(Salen.)*

Escena tercera

En el jardín de la casa de Leonato.

Entra Benedicto.

BENEDICTO

Harrigarria da, maitasunagatik egiten diren erokeriak ezagutzen dituen gizon bat, haien kontura barre egin duena, orain maiteminduta egotea eta burla horien hartzaile bihurtzea. Eta gizon hori Claudio da. Ezagutu nuenean garbi eta xalo hitz egiten zuen, itzulitururik gabe, soldadu baten moduan, eta orain metaforekin egiten du. Nola liteke hainbeste aldatzea? Eta hau niri gerta lekidake? Ezin dut sinistu. Baliteke egun batetik bestera maitasunagatik ostra bat baino aspergarriago bihurtzea, baina zin dagit ostra bihurtzen ez naizen bitartean, maitasunak ez nauela zoraturik, Claudio txolindu duen moduan. Emakume hau ederra dela, bost axola niri; beste hori birtutetsua dela, batere ardurarik ez; hango hura oso atsegina dela, ze inporta zait niri? Ez, ez... grazia eta birtute guztiez hornituriko emakume bat aurkitu arte, batek ere ez du nigandik ezer aterako. Hara... hona dator printzea eta berarekin Maitasunaren Monsieur hori... Ezkutatu egingo naiz, ikusi ez nazaten.

(Entran Don Pedro, Leonato y Claudio.)

DON PEDRO

(Aparte) Konturatu zara Benedicto non ezkutatu den?

LEONATO

(Aparte) Azeri hori ehizatuko dugu.

DON PEDRO

Zer esan didazu lehen, zure iloba Beatriz Benedicto jaunarekin maiteminduta dagoela?

LEONATO

Izan liteke. (*Aparte*) Goazen tentuz, presarik gabe... Sekula ez nuen usteko dama horrek gizon bat maitatuko zuenik.

CLAUDIO

Ez eta neuk ere. Baina harrigarriena bere begiak Benedictorengan jartzea izan da. Itxura guztien arabera, betidanik arbuiatu du eta.

BENEDICTO

(*Aparte.*) Egia ote da hori?

LEONATO

Egia esan, ez dakit zer pentsatu. Orain zeharo maiteminduta badago, nola uler liteke hori?

DON PEDRO

Agian itxurak egiten ari da, besterik gabe.

CLAUDIO

Bai, litekeena da, oso.

LEONATO

Jainkoarren! Itxurak? Itxurazko pasio bat ez da inoiz egon benetako pasio batetik hain gertu.

DON PEDRO

Arrazoi duzu, baina... pasio horren seinalerik antzematen zaio?

CLAUDIO

(*Aparte a Don Pedro y a Leonato.*) Prestatu ondo amua, eta arrainak irentsiko du.

LEONATO

Ea seinalerik antzematen zaion? Eserita geratzen da eta... (*a Claudio*) esango zizun nire alabak nola geratzen den...

CLAUDIO

Esan egin dit, esan egin dit.

DON PEDRO

Nola, nola? Esaidazue, arren. Harrituta uzten nauzue. Maitasunaren erasoen kontra menderaezina zelakoan nengo.

LEONATO

Hala pentsatzen nuen neuk ere, jauna. Batez ere Benedicto jaunaren kasuan.

BENEDICTO

(*Aparte.*) Bere osabak berak esaten duelako, bestela hau guztia amarru bat dela pentsatuko nuke.

CLAUDIO

(*A Don Pedro y a Leonato.*) Amua irentsi du jada; ez ezazue askatu.

DON PEDRO

Eta Beatrizek jakin arazi al dio Benedictori maite duela?

LEONATO

Ez, ez, eta hitz eman du sekula ez duela egingo; horregatik sufritzen ari da. Alabak dioenez, hogeit aldiz altxatzen da ohetik gauean zehar, gutun bat idazteko asmoz, baina gero pentsatzen du: “nolatan aitortuko diot, beti esan badut arbuiatzen dudala? Bera ni bezalakoa da eta nire kontura barre egingo du, nik egingo nukeen moduan.” Eta orduan gutuna mila zatitan puskatu eta belauniko jartzen da... eta negarrez hasten da, etsiak hartuta, ileetatik tiraka, bularrean kolpeka.

CLAUDIO

Horrelaxe kontatu zidan zure alabak. Beatriz bere buruaz beste egiteko tenorean egon daitekeen beldur da.

DON PEDRO

Beatrizek ez badio aitortu nahi, komeni da norbaitek Benedictori jakinaraztea.

CLAUDIO

Zertarako? Benedictok burla egingo dio gero.

DON PEDRO

Hori egingo balu, urkatzea mereziko luke. Dama xarmangarria da, atsegina eta bertutetsua.

CLAUDIO

Baita arduratsu eta zentzuduna.

DON PEDRO

Mesedez, jarri dezagun Benedicto jakinaren gainean, eta ikustagun berak zer erabakitzen duen.

LEONATO

Eta hori zentzuzkoa dela uste duzu?

CLAUDIO

Herok dio Beatriz hilko dela Benedictok maite ez badu, baina nahiago duela hil, aitortu baino, eta hil egingo da Benedictok gortetzen badu ere, izakera kontraesankorra aldatzea ezinezkoa zaiolako.

DON PEDRO

Arrazoi du, argi dago Beatrizek ezin duela lehenengo pausua eman, Benediktok arbuiatuko lukeelako. Denok dakigu gure laguna, izatez, mespretxatzailea dela.

CLAUDIO

Baina jaun dotorea da.

LEONATO

Eta itxuraz oso atsegin eta abegikorra.

DON PEDRO

Egia esan, askotan frogatu digu bere talentua.

CLAUDIO

Hori gutxi balitz, gizon ausarta dela iruditzen zait.

DON PEDRO

Ez duzue uste Benedictoren bila joan behar dugula, Beatrizen maitasunaren zintzotasunaz hitz egitera?

CLAUDIO

Etzazu hori egin, jauna. Hobe du Beatrizek bere mina gainditu, aholku egokien bidez.

LEONATO

Ezinezkoa da hori, lehenago bere bihotzak eztanda egingo du.

DON PEDRO

Balieteke ere bere pasioa epeltzen joatea. Benedicto estimu handian daukat, eta nahiko nuke bera konturatzea ez duela deus ere balio Beatrizekin konparatu ezker.

LEONATO

Bagoaz, jauna? Bazkaria gertu dago.

CLAUDIO

(Aparte.) Egin dugunarekin Benedicto ez bada maitemintzen, nik ez dut ezertan ere sinistuko.

DON PEDRO

(En voz baja a Leonato.) Orain amarru berean endredatu behar dugu Beatriz, eta horretarako zure alaba eta bere dontzeilaren beharra dugu. Dibertigarria izango da biek pentsatzea elkar maite dutela, gezurra bada ere.

(Don Pedro, Claudio y Leonato salen.)

BENEDICTO

(Saliendo de su escondite.) Hau ezin daiteke txantxa izan; benetan ari direla dirudi. Eta gorabehera guztiak Heroren bidez jakin dituzte. Beraz maite nau! Ulertzen dut egin didaten kritika. Maite nauela jakingo banu burla egingo niokeela diote, eta berak nahiago lukeela hil, bere maitasuna aitortu baino lehen. Egia da; ezkontzeko asmorik inoiz izan ez badut, ez dut zertan harrotu. Zorionekoak kritikak eroapenez jaso eta okerrak zuzentzen dituztenak. Dama ederra dela diote, eta egia da. Bertutetsua, eta hori ere ezin dut ukatu. Eta zentzuduna, nitaz maitemindu den arren. Badakit barre egingo didatela, eta burla askoren helburu izango naizela, ezkontzearen kontra hitz egin izanagatik. Baina gustoak ezin ote dira aldatu? Gure desioak ukatu behar ditugu? Ez, mundua ugaldtu egin behar da. Han dator Beatriz. Zeruko santu guztien izenean, zeinen ederra den! Dudarik gabe bere aurpegiera eta ibilkera maitemindutako emakume batenak dira.

(Entra BEATRIZ.)

BEATRIZ

Nire borondatearen kontra, zu mahaira mesedez etortzeko mandatua eman didate.

BENEDICTO

Eskertzen dizut hartu duzun nekea, Beatriz ederra.

BEATRIZ

Neke honek ez du eskertzea merezi; niretzat benetako nekea izan balitz, ez nintzatekeen etorriko.

BENEDICTO

Horrek frogatzen du, anderea, mandatua betetzea ez zaizula astuna egin.

BEATRIZ

Zuri dentistarengana joatea bezain beste gustatzen zait niri honelako mandatuak egitea. Ikusten dudanez, ez duzu jateko gogo handirik. Gera zaitetz Jainkoarekin. *(Sale.)*

BENEDICTO

Maiteminduta dago, zalantzarik ez. Ez badiot emakume honi errukirik, bihotz gabea naiz; ez badiot maitasun pixka bat eskeintzen, zekena. Bere erretratua lortu behar dut! *(Sale.)*

ACTO TERCERO

Escena primera

HERO

Margarita laztana, zoaz Beatrizen bila, eta isilpean esaiozu ni eta Urtsula ikusi gaituzula lorategian, berari buruz hizketan. Esaiozu gero, gure elkarriketa entzun nahi badu, zugaxkaren atzean ezkutatzera etor dadila, esaten dugun guztia entzun ahal izateko. Utzi gaitzazu orain bakarrik eta egin dena diskrezioz.

MARGARITA

Segituan esango diot etortzeko, nire hitza duzu.

HERO

Orain, Urtsula, entzuidazu. Beatriz hurbiltzen denean, Benedictori buruz hasiko gara hizketan. Eta nik bere izena aipatu orduko, zuk laudorioak eskeiniko dizkiozu, eta merezi duena baino are gehiago goraipatuko duzu. Nik esango dut asko sufritzen ari dela, eta Beatrizenganako sugarrezko maitasunak erio dagoela.

ÚRSULA

Ondo dakit, anderea, hitzak direla Cupido txikiaren geziak pozoitzen dituen substantzia.

HERO

Orain hasiko gara...

(Entra Beatriz y trata de ocultarse detrás de las enramadas.)

...Beatriz ikusi dudala iruditu zait, suge baten moduan irristatuz, esaten duguna entzun ahal izateko.

ÚRSULA

Hurbildu gaitezen beragana ahal dugun beste; beharrezkoa da prestatu dugun amua irenstea.

HERO

(Se acercan despacio a la enramada) Ez, Úrsula; sinistuidazu, harroegia da. Ezagutzen dut bere izakera zakar eta handigura, arranoaren parekoa.

ÚRSULA

Eta ziur zaude Benedicto seko maitemindu dela Beatrizekin?

HERO

Horrela diote printzeak eta nire senargaiak.

ÚRSULA

Eta esan dizute Beatrizi esateko?

HERO

Haiek esatea nahi dute, eta hala erregutu didate, baina nik esan diet, benetan Benedictoren lagunak badira, maitasun hori ahazteko aholkatu behar diotela eta Beatrizi ezer esatea burutik kendu.

ÚRSULA

Eta zergatik? Ez al du gizon horrek ezkon-oheaz gozatzea merezi?

HERO

Horixe baietz, baina naturak ez du sekula Beatrizena baino bihotz gogorragorik sortu. Bere ariman ez dago maitasunerako edo xamurtasunerako tokirik, hain baita emakume harroa.

ÚRSULA

Baliteke hala izatea. Hobe Benedictoren sentimenduen berririk ez badu, bestela burla egingo dio gaixoari.

HERO

Arrazoi duzu, oraindik ez baitut ikusi gizonik, denik eta zintzoena, ederrena, adimentsuena, edo gazteena, Beatrizek mespretxatu ez duenik. Ilehoria bada, bere arrebatzat hartuko luketeela dio; beltzarana bada, naturaren orban bat dela; altua bada, lantza baten kirtena da; txikia bada, garbantzua; berritsua bada, haizeak astintzen duen haize-orratza; isila bada, enbor sikua. Bakoitzari alde itsusia aurkitzen dio, zintzotasun eta bertutearen merituak onartu gabe.

ÚRSULA

Egia, egia borobila, eta jarrera hori ez da onargarria.

HERO

Beatrizen portaera, guztiz naturaren kontrakoa, ezin da onartu, baina nor ausartzen da berari esatera? Nik hitz egingo banio, burla egingo lidake, modu zakarrean. Bere zirien garraztasunarekin torturatuko ninduke, desesperatu arte. Hobe du Benedictok bere malkoetan ito, burla eta zirien zamak zapalduta hil baino.

ÚRSULA

Hala ere, hobe genuke esatea; horrela jakingo genuke bere erantzuna.

HERO

Ez; nahiago dut Benedictorekin berba egin eta maitasun hori ahaztea aholkatu. Eta beharrezkoa balitz, nire lehengusinarekin kontrako gezurren bat asmatuko nuke. Inork ez daki asmo txarrez esandako hitz batek zelako kaltea egin dezakeenik.

ÚRSULA

Etzazu zure lehengusina modu horretan iraindu. Benedicto bezalako jaun baten dohai baliotsuak onartzeko gauza izango da, ez dut uste hain zentzugabea denik.

HERO

Benedicto Mesinako gizonik prestuena da, nire Claudio maiteaz aparte.

ÚRSULA

Gehiago esango nuke nik, Benedictok Italia osoaren miresmena irabazten jakin du, bere jokaera eta ausardiagatik.

HERO

Egia da ospe handia lortu duela.

ÚRSULA

Lortu ere, merezimendu osoz lortu du. Eta zure ezkontza, anderea, noiz ospatuko da?

HERO

Bihar, ondo bidean. Sar gaitezen etxean eta erakutsiko dizkizut prestatu ditudan jantzi batzuk. Esango didazu zure iritziz zeinekin nagoen ondoen.

ÚRSULA

(A Hero en voz baja.) Irentsi egin du; ziur egon, anderea, gurea dela.

HERO

(A Úrsula.) Lortu badugu, orduan maitasunean kasualidadeak agintzen du. Cupidok batzuk geziekin eta beste batzuk amuekin hiltzen ditu. *(Salen Hero y Úrsula.)*

BEATRIZ

(Adelantándose en el paseo.) Nahastuta nago... Zer entzun dute nire belarriek? Eta egia bada, eta erru guztia nire harrokeriarena bada, eta jendea tratatzeko nire zakarkeriarena? Handigura eta

haizekeria baztertu beharko ditut. Zertarako nahi ditut, ez badidate inolako osperik eskeintzen? Eta zu, Benedicto, ez nau nahigabetzen zure maitasunak. Desio duzun emakumea izango naiz zuretzat; ume txikiaren zakarkeria leunduko dut, eta nire bihotza zure eskuaren xamurtasunaren altzoan jarriko dut. Besteek zuk dena merezi duzula esaten badute, nik badut froga are gehiago hori sinisteko. *(Sale.)*

Escena segunda

DON PEDRO

Hemen geratuko naiz zure eskontza egunerarte; gero Aragoi aldera abiatuko naiz.

CLAUDIO

Bertaraino lagunduko dizut, jauna, zure baimenarekin.

DON PEDRO

Ez, zure ezkontzaren poztasunean nota triste bat jartzea litzateke hori; jantzi berria erakutsi eta segidan jazteko baimena ukatzen dioten umea bezala geratuko zinateke. Benedictoren laguntza eskatuko dut soilik, alaitasunaren personifikazioa baita, alde guztietatik begiratuta. Bere bihotzak kanpai baten soinu alegera dauka.

BENEDICTO

Lagunak, ez naiz jada lehenagokoa.

LEONATO

Hori esan behar nuen ba nik; triste zaudela dirudi.

CLAUDIO

Maiteminduta dagoela uste dut.

DON PEDRO

Urkatzea mereziko luke orduan, bere burua saltzeagatik. Bere gorputzean ez dago odol tanta bakar bat, maitasunaren eragina sentitzen duenik. Triste badago, dirurik ez daukalako izango da.

BENEDICTO

Hagineko mina daukat.

LEONATO

Nola?

DON PEDRO

Hagineko minagatik zaude hasperenka?

CLAUDIO

Joan zaitez hagina kentzera.

BENEDICTO

Bai, mundu guztiak daki ezbeharrak nola konpondu, pairatzen dituenak izan ezik.

LEONATO

Agian tximeletak sentitzen dituzu sabelean?

CLAUDIO

Nik esan dut jada: maiteminduta dago.

DON PEDRO

Ez diot maitemiduta daudenei nabaritzen zaizkien seinaleetatik bat bera ere ikusten, akaso bere jazkera, baina hori ez da nahikoa maitasunagatik erotuta dagoela esateko, nire ustez.

CLAUDIO

Gaur goizean ilea orraztu du, baina zer adierazten du horrek?

DON PEDRO

Gainera, perfumez blai dago... Horrek zerbait esan nahi du?

CLAUDIO

Maiteminduta dagoela.

DON PEDRO

Eta frogarik garbiena bere begirada da, ezin goibelagorik.

CLAUDIO

Bai, eta bere izaera, beti irrizale eta burlazalea, orain soilik entzuten zaio sokak estutu ezker, gitarra baten antzera.

DON PEDRO

Laburbilduz, maiteminduta dago.

CLAUDIO

Eta nik badakit nor den maitasun horren hartzailea.

DON PEDRO

Horixe jakin nahi nuke nik. Eta esango nuke emakume horrek ez duela Benedicto ondo ezagutzen.

CLAUDIO

Ondo ezagutzen du, eta ondo ezagutzen ditu bere akats guztiak, eta hala ere maite du.

BENEDICTO

Eskerrik asko, jaunak, baina horrela ez da hagineko mina sendatzen. (*A Leonato.*) Ene jaun ona, zurekin bakarrik egon nahiko nuke; esateko daukadana hitz gutxitan laburbil daiteke, eta berehalakoan ulertuko duzu, baina jaun zintzo hauek ez dute zertan entzun. (*Benedicto y Leonato salen.*)

DON PEDRO

Nire biziagatik, honek Beatrizena aitortuko dio.

CLAUDIO

Gauza bera uste dut nik. Hero eta Margarita euren komedia burutuko zuten Beatrizen aurrean, eta orain pizti bi hauek ez diote elkarri haginka egingo elkartzen direnean.

(Entra Doña Juana.)

DOÑA JUANA

Mi señor.

DON PEDRO

Buenas tardes, hermana.

DOÑA JUANA

Si tuvierais un momento, quisiera hablaros.

DON PEDRO

¿A solas?

DOÑA JUANA

Si me lo permitís; sin embargo, el conde Claudio puede escuchar, pues lo que he de decir le concierne.

DON PEDRO

¿De qué se trata?

DOÑA JUANA

(A Claudio.) ¿Pensáis casaros mañana?

DON PEDRO

Ya sabéis que así es.

DOÑA JUANA

No sé si se casará, cuando sepa lo que yo sé.

CLAUDIO

Si hubiera algún impedimento, os ruego que me lo digáis.

DOÑA JUANA

Aunque penséis que no soy vuestro amigo, puede que me apreciéis más cuando sepáis lo que voy a confiaros. Y por lo que se refiere a mi hermano, que por el aprecio que os tiene tanto se ha esforzado en preparar la boda... todo ha sido en vano.

DON PEDRO

Pero, ¿qué sucede?

DOÑA JUANA

La dama os engaña. Desde hace tiempo y muchos lo saben.

CLAUDIO

¿Quién? ¿Hero?

DOÑA JUANA

Sí, ella... la Hero de Leonato, vuestra Hero, la Hero de todo el mundo.

CLAUDIO

¿Que me engaña?

DOÑA JUANA

La palabra es demasiado suave para expresar su maldad. No quiero que me creáis hasta que tengáis las pruebas convincentes. Venid esta noche conmigo, y veréis con vuestros propios ojos cómo la víspera de la boda un hombre sale de la ventana de su habitación. Y si después la seguís amando, casaos mañana con ella, aunque por el bien de vuestro honor mejor sería que cambiarais de intención.

CLAUDIO

¿Pero esto es posible?

DON PEDRO

No puedo creerlo.

DOÑA JUANA

Si no os atrevéis a dar crédito a lo que veis, no confeséis que lo habéis visto. Si queréis seguirme, os mostraré lo suficiente, y cuando lo hayáis visto y oído, haced lo que os parezca.

CLAUDIO

Si yo viese esta noche alguna cosa por la que no pudiera casarme mañana, juro que se lo echaré en cara en la misma iglesia ante los invitados que asistan a la boda.

DON PEDRO

Y yo, del mismo modo que la cortejé en tu nombre, me uniré a ti para cubrirla de vergüenza.

DOÑA JUANA

Yo no quiero decir nada contra ella hasta que no seáis testigos de lo que os he confiado. Sed prudentes y comedidos hasta medianoche, y entonces dejad que las cosas sigan su curso. Es una desgracia evitada a tiempo. Esto es lo que diréis cuando sepáis toda la verdad. *(Salen.)*

Escena tercera

Entran Dogberry y su compañero Verges con cinco guardias de noche.

DOGBERRY

¿Sois gente honrada?

VERGES

Más os vale, porque sois representantes de la justicia.

DOGBERRY

Compañero Verges, dadles la consigna de esta noche.

VERGES

En primer lugar, ¿a quién de vosotros consideraréis más dotado para el mando?

DOGBERRY

Me ha llegado que a alguno de vosotros le salen los crucigramas.

Todos señalan a uno de ellos.

DOGBERRY

Paso adelante. ¿Nombre?

GUARDIA 1º

Gianni Verga, señor.

DOGBERRY

¿Berga de Bérgamo?

GUARDIA 1º

Verga de verga, señor.

VERGES

¡Firme, Verga!

DOGBERRY

Se os considera el lumbreras del grupo; por consiguiente quedaréis al cuidado de la linterna.

Pequeña ceremonia de entrega de la linterna.

GUARDIA 1º

No tiene pilas.

DOGBERRY

¿No tiene pilas? ¡Pilas!

Verges le pone las pilas.

DOGBERRY

(A Verges) La consigna.

VERGES

La consigna es ésta y es la misma para todos.

DOGBERRY

¡Apunten! (*Los guardias sacan sus libretas y apuntan*)

VERGES

Detendréis, en nombre del príncipe, a todos los vagabundos que os salgan al paso.

GUARDIA 2º

¿Y si alguno no quiere detenerse?

DOGBERRY

En ese caso, dejadle que se vaya. Y dais gracias a Dios por haberos librado de un mal sujeto.

VERGES

También evitaréis hacer ruido por las calles. Que los guardias se pasen la noche charlando es una cosa *tolerable*, que no se puede permitir.

GUARDIA 3º

¿Mejor será que durmamos a que charlemos?

DOGBERRY

No veo qué mal puede hacer alguien que duerme. Sin embargo, mucha atención a que no os roben las porras.

VERGES

Recorreréis todas las cervecerías y donde encontréis borrachos, los mandáis a la cama.

GUARDIA 4º

¿Y si no quieren retirarse?

DOGBERRY

En ese caso, los dejáis tranquilos hasta que se serenen.

GUARDIA 2º

¿Y si no responden mejor?

DOGBERRY

Podéis decirles que los confundisteis con otros.

VERGES

Si os tropezáis con un ladrón, deberéis sospechar que no es una persona honrada. Y con esa gente, cuanto menos os mezcléis, más ganará vuestra reputación.

GUARDIA 5º

Si nos damos cuenta de que es un ladrón, ¿no es nuestro deber detenerle?

DOGBERRY

Por supuesto que *podría*s detenerle. Pero yo os doy un consejo: el que toca carbón, sale tiznado.

VERGES

Si oís a algún bebé que grita durante la noche, iréis a su casa y le explicaréis que los vecinos tienen derecho al descanso.

GUARDIA 4º

¿Y si el bebé no entiende y sigue llorando?

DOGBERRY

Entonces lo llevaréis al calabozo.

GUARDIA 3º

¿Al bebé?

DOGBERRY

Y a la madre. La justicia es igual para todos.

VERGES

Y para terminar, os diré lo último de vuestra consigna. Vos, Verga, sois el representante del príncipe, pero si os tropezáis con él durante la noche, podréis detenerle.

GUARDIA 1º

¡Por la Virgen Santísima! No creo yo que pueda hacer eso.

DOGBERRY

¡Claro que podréis! Siempre y cuando el príncipe os dé permiso para hacerlo. Buenas noches, amigos. Si ocurre algo importante, llamadme.

VERGES

Y ahora, a patrullar en parejas de dos.

GUARDIA 1º

¿Puede haber una pareja de tres?

VERGES

¿Está usted sordo?

GUARDIA 1º

Es por que nadie patrulle solo, mi señor.

VERGES

¿Quién va a patrullar solo? Nadie va a patrullar solo. He dicho parejas de dos. Y alguien solo no es una pareja de dos. Alguien solo es una pareja de uno. De uno. Y yo he dicho de dos.

GUARDIA

Es que somos impares, señor.

DOGBERRY

¿¡Pero qué tiene eso que ver!?

GUARDIA 1º

Pero...

DOGBERRY

Ni peros y ni peras. Como vea algún agente que no patrulla en pareja de dos, que se prepare. (*A Verges*)Vamos, compañero. Deberíamos endurecer las pruebas de acceso...

Para cuando el Guardia 1º se da cuenta, se ha quedado solo.

GUARDIA 1º

Esperad, deberíamos echarlo a suertes. Mejor será que me oculte aquí, no vayan a verme sin pareja.

Se esconde detrás de un banco.

Aparece por un lado Borachio en calzoncillos con la ropa hecha un gurrullo bajo el brazo y, por el otro, Conrado.

CONRADO

¿Borachio? ¿Qué hacéis de esa guisa?

BORACHIO

El trabajo y el placer no tienen por qué estar reñidos, amigo.

Le lanza un fajo de billetes.

CONRADO

¿De dónde habéis sacado esta fortuna?

BORACHIO

Diez mil liras. Pago de doña Juana por mis servicios.

CONRADO

¿Existe alguna perversión que pueda pagarse tan cara?

BORACHIO

Cuando los perversos ricos necesitan a los perversos pobres, justo es que los pobres pongan el precio, ¿no?

CONRADO

Me dejas asombrado. ¿O sea que tú y doña Juana...?

BORACHIO

¡Conrado, por Dios! Vengo de los brazos de Margarita. Pero el encuentro se ha dado en el dormitorio de su señora Hero, mientras ella estaba ausente.

Poco a poco, el Guardia 1º ha ido incorporándose y apunta prolijamente en su libreta todo cuanto Borachio cuenta.

CONRADO

¿Y Doña Juana te ha premiado por eso?

BORACHIO

Paciencia, amigo. He convencido a Margarita para que se vista con ropas de su señora diciéndole que me gusta jugar a llamarla Hero.

CONRADO

No me interesan tus fantasías.

BORACHIO

A Margarita, en cambio, le ha gustado el juego. Tanto como para probar el lecho de su señora. Después, me he descolgado en paños menores por la ventana y me he despedido llamándola Hero. Ella, asomada, me ha lanzado mil besos.

CONRADO

Sigo sin entender qué tiene que ver doña Juana en todo esto.

BORACHIO

He debido de comenzar contándote cómo el príncipe, Claudio y doña Juana han presenciado esta despedida desde el jardín, a lo lejos. Eso sí, colocados y advertidos antes por nuestra ama.

CONRADO

¿Y el príncipe y Claudio han tomado a Margarita por Hero?

BORACHIO

Ambos se han quedado del color de la cera. Y Claudio ha asegurado que mañana avergonzará a Hero en el mismo altar, haciendo público lo que acababa de ver.

El Guardia 1º acaba de apuntar, guarda la libreta y saca la porra.

GUARDIA 1º

¡Alto! Sois la más peligrosa confabulación de la impudicia que jamás se ha visto en los estados de la nación.

CONRADO

Señor...

GUARDIA 1º

Ni una palabra más. Os ordeno que vengáis conmigo.

CONRADO

Parece que somos personas de mucha categoría cuando un hombre uniformado tiene tanto interés en nosotros.

BORACHIO

Es más que interés. Diría que es fijación...

Salen.

Escena cuarta

HERO

Ene Úrsula ona, joan nire lehengusina Beatrizengana eta esnatu, esan altxatzeko, eta hona etortzeko.

ÚRSULA

Banoa, andrea. Baina uste dut kostatuta zaidala. Gau txarra pasa du eta. *(Sale.)*

MARGARITA

Egia esan, nik uste dut beste zapi horrekin politago zaudela.

HERO

Ez, Marga laztana; hauxe eraman nahi dut.

MARGARITA

Ba ez da bestea bezain ederra, eta ziur naiz zure lehengusinak gauza bera esango duela.

HERO

Nire lehengusina zoraturata dago, eta zu ere. Hau nahi dut eta ez dut besterik eramango.

MARGARITA

Zure orrazkera berria politagoa litzateke ilea apur bat ilunagoa bazenu, eta jantziari dagokionez, azken moda jarraitzen duela onartzen dut. Milango dukesaren jantzia ikusi dut, hainbeste laudorio jasotua...

HERO

Zoragarria dela diote.

MARGARITA

Zurearen parean kamisoi bat besterik ez da, benetan. Egia da bere jantziaren ohiala urrezko hariz eginda dagoela, zilarrezko brodatuekin, eta besoak perlas horniturik eta gona brokado urdinez apainduta dituela, baina ebaketaren xarma, oreka eta dotoreziari dagokionez, zureak hamar aldiz gehiago balio du.

HERO

Jainkoak eman diezadala soinekoa jantzita eramateko zoria, oso urduri bait nago, gainean zama bat banu bezela.

MARGARITA

Laster zama astunagoa izango duzu, andrea; gizon baten pisua gainean daukazunean.

HERO

Ixildu zaitez, lotsagabe hori. Ez dizu lotsarik ematen holakorik esateak?

MARGARITA

Zergatik, andrea? Nire hitzak asmo txarrez gaizki ulertzen ez badira behintzat, ez dut inor iraindu. Pekatua da “senarraren zama jasatea”? Ez, ez da pekatua hau esatea, nik uste dut, gizona eta emakumea legez ezkondata daudenean. Bestela balitz, ez litzateke zama bat izango, gozakide bat baizik. Eta ez baduzu horrela uste, galdetuiozu Beatriz nire andreari, handik dator eta.

(Entra Beatriz.)

HERO

Egun on, lehengusina.

BEATRIZ

Egun on, Hero ona.

HERO

Zer duzu orain? Zure tonuagatik goibel zaudela dirudi.

BEATRIZ

Nire tonua? Ezingo nuke besterik eduki.

MARGARITA

Zure tonua egokia da balada bat kantatzeko.

BEATRIZ

Eta zurea ardi baten moduan balaka hasteko.

MARGARITA

Beee.

BEATRIZ

Hamaikak dira ia, lehengusina; apainduta egoteko ordua da. Eh... Ondoezik nagoela uste dut.

MARGARITA

Norengatik ari zara sufritzen?

BEATRIZ

Zuregatik.

MARGARITA

Beee.

HERO

Begira, eskularru hauek Claudiok oparitu zizkidan. Bere perfumea zoragarria da.

BEATRIZ

Katarroa daukat, lehengusina; usaimena galdu dut.

MARGARITA

Ezkongabea eta konstipatua! Ohean bakarrik lo egitearen ajea!

BEATRIZ

Noiztik zara zu horren adarjolea?

MARGARITA

Zuk izateari utzi zenionetik. Adarra jotzeak on egiten dit, ez duzue uste?

BEATRIZ

Ez zaizu askorik nabaritzen. Adarrok bekokian jarri beharko zenituzke, ondo ikusteko. Jainko maitea, gaixorik nago.

MARGARITA

Har ezazu *Carduus BENEDICTUS* destilatu pixka bat, eta jarri bihotzaren parean. Kontzientziaren kezka arintzeko osabiderik onena omen da.

BEATRIZ

Benedictus...? Zer dela eta *Benedictus*? Ezkutuko esanahia dauka *Benedictus* horrek?

MARGARITA

Ezkutuko esanahia? Ez da hori nire asmoa. Bedeinkaturiko kardoaz ari naiz ni. Maiteminduta zaudela uste dudala pentsatuko duzu agian. Ba ez, Birginarengatik zin dagizut. Nahiko nuke nik, baina ez nago nire nahiak esaten didanari kasu egiteko bezain zoratuta. Maiteminduta zaudela pentsatuko banu, edo maiteminduta egon nahi duzula, edo maiteminduta egon zaitezkeela, pentsamendu hura baztertuko nuke. Hala ere, Benedicto asko aldatu da, eta orain besteak bezelako gizona dirudi. Lehen sekula ez zela ezkonduko aldarrikatzen zuen, baina orain, bere bihotzak agintzen zionaren kontra, ez du erreparorik jartzen. Nik ez dakit ze punturaino aldatu zaitezkeen zu, baina gainontzeko emakumeek begiratzen duten moduan begiratzen hasi zarela somatu dut zure begietan.

BEATRIZ

Nora jo nahi duzu horrekin?

(Vuelve a entrar ÚRSULA.)

ÚRSULA

Azkar ibili, andrea. Zu elizara eramatera etorri dira.

HERO

Lehengusina maitea, eta zuek, Marga eta Úrsula, lagundu jazten. *(Salen.)*

Escena quinta

Otro aposento en la casa de Leonato.

Entran Leonato con Dogberry y Verges.

LEONATO

¿Qué queréis de mí, alguacil mayor?

DOGBERRY

Señor, quisiera haceros cierta confidencia, que os atañe de un modo diría que bastante cercano.

LEONATO

Sed breve, os lo ruego. Ya veis que estoy muy ocupado.

DOGBERRY

Lo veo, señor.

VERGES

Yo también lo veo. Lo veo y lo escucho. Ambas cosas, señor.

LEONATO

¿Podéis decirme de qué se trata, mis queridos amigos?

DOGBERRY

El buen Verges, señor, se dispersa un poco. Está aprendiendo y su mente no está tan centrada como yo quisiera que estuviese. Pero os juro que es honrado y limpio como no había otro en su promoción.

VERGES

Las comparaciones son odiosas.

DOGBERRY

¿Ya estás yéndote por las ramas? Céntrate en lo que estamos, diantre. No te desvíes. *(A Leonato)*
¿Lo ve? Tiene una fuerte tendencia a la digresión. Pero poco a poco lo vamos trabajando...

LEONATO

¿No vais a decirme qué pasa?

VERGES

El caso, señor, es que esta noche, nuestra ronda ha detenido a dos de los más famosos bribones de cuantos hay en Mesina.

DOGBERRY

Verges está empezando, señor. A él le gusta explicarse mucho. Pero tengamos paciencia con él porque, como dice el proverbio: “Errando, errando, se va acertando”. Es un bendito. El pobre no ha hecho nunca mal a nadie. Pero, gracias a Dios, no todos somos iguales, ¿verdad señor Leonato?

LEONATO

No puedo estar más de acuerdo. No, no todos somos iguales.

DOGBERRY

Pero los que tenemos un don, también tenemos una responsabilidad...

LEONATO

Hablando de responsabilidades, he de dejaros.

DOGBERRY

Sólo una palabra, señor. Nuestra guardia ha detenido a dos culpables sospechosos y quisiéramos que comparecieran esta mañana ante Vuestra Señoría.

LEONATO

Vos mismo tomadles la declaración pertinente y traédmelos. Ahora tengo mucha prisa.

DOGBERRY

A la orden, señor.

ANTONIA

Hermano, os están aguardando para que hagáis la entrega de vuestra hija su esposo.

LEONATO

Ahora mismo voy. *(A los guardias)* Antes de partir, tomad una copa a la salud de mi hija.

Leonato y Antonia salen.

DOGBERRY

Mi buen compañero, id a casa del tal Verga y decidle que se presente en el juzgado para que le tomen declaración.

(Salen.)

ACTO CUARTO Escena primera

En la capilla de la iglesia.

Entran Don Pedro, Doña Juana, Leonato, Fray Francisco, Claudio, Benedicto, Hero, Beatriz y los acompañantes.

LEONATO

Ea, fray Francisco, joan zaitetz harira; burutu ezazu ezkontza eta geroago azalduko dituzu senar emaztearen betebeharrak.

FRAY FRANCISCO

Dama honekin ezkontzera etorri zara, jauna?

CLAUDIO

Ez.

LEONATO

Berarekin ezkondua izatera; zeu zara damarekin ezkontarazi behar duena.

FRAY FRANCISCO

Hero, Claudiorekin ezkontzera etorri zara?

HERO

Bai, ezkontzera etorri naiz.

FRAY FRANCISCO

Zuetako baten batek ezagutzen badu bateratze hau gelarazi dezakeen eragozpenik, zuen arimaren salbazioagatik, publikoki adieraztera gonbidatzen zaituztet.

CLAUDIO

Hero, zuk ezagutzen duzu baten bat?

HERO

Ez ta bat ere, jauna.

FRAY FRANCISCO

Eta zuk, Claudio, ba al duzu zerbait?

LEONATO

Bere ordeztu erantzungo dut, bere baimenarekin: ez dago bat ere ez.

CLAUDIO

A ze ausardia, hausnartu gabe behar ez dena esaten duenarena. Jauna, zuk zure borondatez eskeintzen didazu zure alaba, hemen dagoen dontzeila hau?

LEONATO

Bai, ene semea, neure borondatez, Jainkoak niri eskeini zidan bezela.

CLAUDIO

Eta nik, zer eskeini niezazuke opari aberats eta preziatsu honen truke?

LEONATO

Ezer ere ez, ez ba didazu bueltan eman nahi, behintzat.

CLAUDIO

Orduan, Leonato, har ezazu zure alaba, nik bueltan ematen dizut eta. Emakume honek ondra, azalean eta itxuran besterik ez dauka. Begira ezazue. Dontzeila baten moduan gorritzen da... Zuek denak, ikusten ari zaretenak, ez zenukete zin egingo neskatile garbia dela? Ba emakume hau ez da dontzeila, baizik eta eskarmentu handiko neskatile bat, lujuriaren beroa zer den ondo ezagutzen dueña.

LEONATO

Jauna, zer esan nahi duzu hitz hauekin?

CLAUDIO

Ez naizela berarekin ezkonduko. Ez dut nahi nire arima emakume lizun batenarekin elkartzerik.

LEONATO

Claudio maitea, zuk zeuk bere birjintasuna urratu baldin baduzu...

CLAUDIO

Beti errespetatu dut anaia batek bere arreba bezala.

HERO

Eta nik, beste moduren batean jokatu ote nuen?

CLAUDIO

Alde nire bistatik! Agerian uztiko dut nor zaren. Emakumeen artean bertutetsuena zinela sinistarazi zenidan; baina zure odola, etengabe larrutan ari diren abere basatiena baino beroagoa da.

HERO

Burutik ondo al dago ene jauna, horrelakorik esateko?

LEONATO

(A Don Pedro.) Printze maitea, zergatik ez duzu ezer esaten?

DON PEDRO

Zer esan nezake? Lotsatuta nago, nire laguna puta zikin batekin elkartu nahi izateagatik.

LEONATO

Esan daiteke holakorik, ala ametsetan nago?

DOÑA JUANA

Señor, lo lamento, pero las acusaciones son ciertas.

BENEDICTO

Hauek ez dira ezkonduko.

HERO

Egia diotela? Baina ze egia, ene jainkoa?

CLAUDIO

Leonato, zuk hemen ikusten nauzu, ez? Eta hor printzea dago, eta aldamenean bere arreba. Baina beste hori Heroren aurpegia dela uste duzu? Bere benetako nortasuna ikusten dugula uste duzu?

LEONATO

Ba bai, begien aurrean daukaguna da ikusten duguna. Zertara dator galdera hori, jauna?

CLAUDIO

Zure baimenarekin galdera bat egingo diot zure alabari, eta zuk, bere aita zarenez emaiozu egia esateko agindua.

LEONATO

(A Hero.) Agindua ematen dizut: benetan nire alaba bazara, esan egia!

HERO

Ene jainkoa, lagundu, arren! Denak daude nire kontra. Zer dela eta galdeketa hau?

CLAUDIO

Erantzuidazu: nor zen bart gauean zure logelako lehiotik galtzontzilotan ater zen gizona?

HERO

Nik ez dakit zertaz ari zaren, jauna.

DON PEDRO

Zuk ez daukazu dontzeila baten duintasuna! Pena ematen dit, Leonato, entzungo duzuna esan beharrak. Zin dagizut, nire ohoreagatik, nik neuk, nire anaiak eta konte honek bart gauean zure alaba ikusi genuela lotsagabe batekin bere gelako leihoan. Eta maltzur horrek, doilorren arteko doilorrenak, aitortu zigun, batere arrangurarik gabe, isilpeko hamaika enkontru lotsagarri izan dutela.

DOÑA JUANA

Lotsagarriak! Vergonzosos. Unos encuentros vergonzosos. No merecen otro nombre ni que se hable de ellos.

CLAUDIO

Oh, Hero, a ze emakume handia zinatekeen zure bihotzak zure edertasunaren erdia eduki balu! Baina zugandik urrundu behar naiz, ederra bazara, arbuigarria ere zarelako. Agur; zitalkeria eta lohikeria besterik ez zara.

LEONATO

Zuetako norbaitek ba al dauka laban bat, nire bularrean sartzeko?

(Hero cae desvanecida.)

BEATRIZ

Zer duzu, lehengusina?

DOÑA JUANA

Salgamos de aquí. Estas revelaciones me han destrozado, no puedo más.

(Don Pedro, Doña Juana y Claudio salen.)

BENEDICTO

Nola dago anderea?

BEATRIZ

Hilda dagoela uste dut. Lagundu, osaba. Hero, Hero! Osaba, mesedez! Zu ere, Benedicto jauna. Abade jauna...

LEONATO

Oh, Halabeharra, etzazu zure esku astuna aldendu, bete ezazu zure lana; estali ezazu nire alaba heriotzaren mantuaz, bere desondra estaltzeko belorik onena baita.

BEATRIZ

Nola zaude, Hero, nire lehengusina?

FRAY FRANCISCO

Eutsi, andrea.

LEONATO

Bere onera datorrela dirudi, begiak irekitzen ari da.

FRAY FRANCISCO

Eta zergatik ez zituen ireki behar?

LEONATO

Zergatik? Zergatik? Ez al du mundu osoak bere izena madarikatzen? Hero! Hobe duzu hil, ez ireki begiak. Jakingo banu ez duzula hil nahi, jakingo banu zuregan bizitzeko gogo gaiztakeriaren lotsa baino indartsuagoa dela, ni neu altxatuko nintzateke, zu hiltzeko. Zergatik eman zidan naturak alaba bakar bat... alaba hori soberan badaukat? Zergatik ez nuen hartu umeordetzat nire ate aurrean gelditzen ziren eskale horietako baten alaba? Halatan, oraingo desondra eta lotsarekin zikinduz gero, esango nuke: "ez da nire baitakoa". Baina hau nire alaba da, grinaz maitatu dudana, beragatik munduaz ahaztu arteraino. Eta orain bizio eta gaiztakeriaren amildegi honetan jausi da! Ez dago itxasoan ur nahikorik desondra honen orbana garbitzeko.

BENEDICTO

Lasaitu zaitetz, jauna, lasaitu zaitetz. Hain nago harrituta ze ezin dut hitzik atera, hori besterik ezin dezaket esan.

BEATRIZ

Ba nik hitz egin dezaket, eta nire arimagatik diot nire lehengusina iraindu dutela.

BENEDICTO

Andrea, beraren ondoan egin zenuen lo bart?

BEATRIZ

Ez, baina bart izan ezik, elkarrekin egin dugu lo hamabi hilabete hauetan.

LEONATO

Orduan dena da egia. Gainera, nola liteke printzeek gezurra esatea? Claudiok gezurra esatea? Claudiok hainbeste maite du ze, haren bekatuak azaltzean, malkotan ari zen. Urrundu gaitezen beragandik, hil dadila bakardadean.

FRAY FRANCISCO

Entzuidazue mesedez. Orain arte isildu naiz, dama gazteak zer egiten zuen ikusi nahi nuelako. Eta bere begietan su garbi baten ditzira ikusi dut, printzeen errakuntza agerian utzi dezakeena. Nitaz nahi duzuen pentsa dezakezue, erotu naizela esan dezakezue, eta esaten dudana zalantzan ipini, baina bizitzak eta liburuek irakatsi didatenagatik ziur naiz andere maitagarri hau gaizkiulertu baten biktima izan dela. Eta sinistu nahi ez badidazue, orduan ez zarete nire jakinduriaz, nire duintasunaz eta nire ministerio sakratuaz fidatzen.

LEONATO

Abade jauna, oker zaude. Berak ez du bere errua ukatu. Zergatik nahi duzu bekatua zuritu, gordintasun osoaz agertzen den egia estaliz?

FRAY FRANCISCO

(A Hero.) Andrea, nor da zurekin harremanetan omen dagoen gizon hori?

HERO

Salatu nautenek jakingo dute; neuk ez. Gizonik ezagutuko banu, dontzella baten garbitasunari dagokiona baino haratago, Jainkoak zigortu nazala, eta ez ditzala nire pekatuak barkatu. Abade jauna, ez da egia gizon batekin egon naizenik. Ez badidazu sinisten, bidali nazazu hemendik urrun, arbuiatu nazazu, hil arteraino torturatu nazazu.

FRAY FRANCISCO

Printzeak oker daude, batek daki zergatik.

BENEDICTO

Gizon hauetatik bi, eredugarriak dira. Autu honetan errurik badago, engainatuak izan badira, litekeena da Doña Juana sasikumearen lana izatea, bere artezia eta doilortasuna gaiztakeriak asmatzen erabili ohi du eta.

LEONATO

Nik ezin dut hori baieztatu, ez dakidalako. Nire alabari buruz esan dutena egia bada, esku hauexekin txikituko dut, baina bere ohorea gezurrez zikindu badute, errudunek ordaindu egingo dute. Eta zeregin horretarako oraindik nire besoen indarra daukat eta...

FRAY FRANCISCO

Ez egin ezer oraindik. Printzeak, zure alaba hilda dagoelakoan joan dira. Izkuta ezazu denbora batez, denek pentsa dezatela hilda dagoela. Lutoz jantzi zaitetz itxurak egiteko, eta bete itzazu, bata bestearen ondoren, hildakoaren lurperatzea eta hiletari dagozkion erritu eta zeremonia guztiak.

LEONATO

Eta hori zertarako? Zer lortuko dut horrekin?

FRAY FRANCISCO

Hau egiten badugu, eta ondo egiten badugu, gezurra arrangura bihurtuko da. Jakiten denean Hero hil dela salaketa egotzi zaion unean, errukitu egingo dira, negar egingo dute beragatik, eta barkatu

gingo dute, ez baitugu sekula daukaguna behar beste preziatzen, galtzen dugun arte. Eta Claudiok jakiten duenean bere hitzek hil dutela, hildakoaren irudia bere arimaren barrenean errotuko da, oraindik bizirik zegoenean baino are sakonago. Eta orduan negar egingo du, eta kalumniatu izanak bihozminduko du. Bai, egin duenak torturatuko du, salaketa egiazkoa zela sinisten badu ere. Egon ziur dena nik diodan moduan gertatuko dela, eta hala gertatuko ez balitz ere, zure alabaren heriotzaren berriak bere lotsaren eskandalua estaliko du behintzat. Bere desondraren laidoa konfirmatuko balitz, komentu batean izkutatzea geratuko zaizu, begirada eta mingain gaiztoetatik urruntzeko.

BENEDICTO

Leonato jauna, gizon santu honen aholkuak aintzat hartu. Eta Printzea eta Claudiorengana sentitzen dudana estimua ezagutzen baduzu ere, zin dagit kontu honetan erabateko diskrezio eta isiltasunaz jokatu dudala.

LEONATO

Sufrimenduzko ekaitz baten erdian nago eta esperantza izpirik txikiena ere lagungarri izango zait.

FRAY FRANCISCO

On egingo dizu gertatutakoa eroapenez onartzea. Orain hemendik irtengo gara, eta zoritxar handiei, erremedio handiagoak. Zatoz, anderea, bizi ahal izateko, premiazkoa da hiltzea. Agian zure ezkontza eguna atzeratu besterik ez da egin. Pazientzia eta eroapena.

(Salen el Fraile, Hero y Leonato.)

BENEDICTO

Beatriz anderea, negarrez ari zinela ikusi dut, ez?

BEATRIZ

Bai, negar egin dut, eta negar egiten jarraituko dut.

BENEDICTO

Ez zait gustatzen zu negarrez ikustea.

BEATRIZ

Zergatik diozu? Nire sentimenduek horretara behartzen nautelako egiten ari naiz negar.

BENEDICTO

Zure lehengusina ederra kalumniatu dutelakoan nago.

BEATRIZ

Bere izena garbituko lukeen gizonari, ez dakizu nola eskertuko niokeen.

BENEDICTO

Ba al dago modurik adiskidetasun froga hori zuri eskeintzeko?

BEATRIZ

Modurik egon liteke; adiskiderik, ordea, ez.

BENEDICTO

Horretarako kapaz den gizonik ez dagoela uste duzu?

BEATRIZ

Zeregin hori... ez dut uste zuk egin dezakezunik.

BENEDICTO

Mundu honetan ez dut ezer desio, zu izan ezik, ez al da harrigarria?

BEATRIZ

Erreztasun berdinarekin esan nezake nik, inor ez dudala zu beste maite. Baina ez sinistu. Eta hala ere, ez nabil gezurretan. Ez dut ezer aitortzen, ez ukatzen. Nire lehengusinagatik saminduta nago.

BENEDICTO

Nire bizitzarengatik, Beatriz, jakin ezazu maite zaitudala.

BEATRIZ

Etzazu bizitzarengatik ezer agindu eta bizitzea merezi duzula erakutsi.

BENEDICTO

Nire bizitzak ez dauka zentzurik zu gabe.

BEATRIZ

Orduan, Jainkoak barka nazala...

BENEDICTO

Ze bekatu barkatu behar dizu, ene Beatriz?

BEATRIZ

Ez didazu bukatzen utzi. Nik ere maite zaitudala esan behar nuen.

BENEDICTO

Esan dezakezu, zure arimaren zintzotasun osoaz.

BEATRIZ

Maite zaitut, hainbeste maite zaitut ze esateko indarra ere falta zait.

BENEDICTO

Eskatuidazu zuregatik zerbait egiteko, nire maitasuna frogan jartzeko.

BEATRIZ

Hil ezazu Claudio.

BENEDICTO

Ah, ez! Trukean mundo osoa eskeiniko balidate ere ez nuke egingo.

BEATRIZ

Onartzen ez baduzu, ni hilko nauzu.

BENEDICTO

(La coge de la mano.) Egon, Beatriz maitea.

BEATRIZ

Hemen banago ere, ni joan naiz jada. Zuk ez nauzu maite. Mesedez, utzidazu joaten.

BENEDICTO

Beatriz...!

BEATRIZ

Esan egin dizut; hemendik joan nahi dut.

BENEDICTO

Lehenago adiskidetu behar dugu.

BEATRIZ

Nire adiskidea zarela esateko ausardia duzu, baina ez nire etsaiaren kontra borrokatzeko.

BENEDICTO

Claudio zure etsaia ote da?

BEATRIZ

Ez al duzu ikusi egin duena? Gizonik doilor eta zitalenaren moduan jokatu du, nire lehengusina kalumniatuz, irainduz, eta desohoretuz. Ah, ni gizona banintz! Zer egin du? Engainupean aldareraino eraman du eskutik helduta, eta bion eskuak betiraino elkartzera zihoazen unean, denon aurrean salatu du, lotsarik gabe eta gupidagabeko amorruez. Ene jainkoa... gizona banintz bere bihotza jango nuke merkatu plazaren erdian.

BENEDICTO

Entzuidazu, Beatriz...

BEATRIZ

Gizon batekin gaua pasatu duela esatera ausartzea ere!

BENEDICTO

Entzuidazu, Beatriz...

BEATRIZ

Ene Hero gaixo maitea! Denak kalumniak eta gezurrak.

BENEDICTO

Beat...!

BEATRIZ

Gizon bakar bat balego, adiskide bat, niganako maitasunagatik mendeku hartzeko prest... Baina non dago gizontasun hori? Orain dena da kortesia eta zeremonia. Eta gizonek hitz polit eta zoliak besterik ez dute ahoan, laudorioetan urtzen dira. Egun, ausarta izateko, gezurrak, biraoak eta harropuzkeriak ohiukatu besterik ez da behar... Eta nik benetan gizon izan nahi nuke, baina ezin dut; penaz hilko naiz, bada, emakume baten moduan.

BENEDICTO

Isildu, Beatriz maitea. Ez dizut nik, nire bizitzagatik, maite zaitudala esan?

BEATRIZ

Etzazu esan zure bizitzagatik maite nauzula; zure bizitza arriskuan jartzeko adorea duzula erakutsidazu.

BENEDICTO

Benetan uste al duzu, zinez eta egiaz uste al duzu konteak Hero kalumniatu duela gezurrekin?

BEATRIZ

Bai! Zinez uste dut, bihotza era arima dudala sinisten dudan moduan.

BENEDICTO

Isildu, ez gehiago hitz egin. Zin dagizut desafioa botako diodala konteari. Nire hitza eman dizut: Claudiok ordainduko dit egin duena. Gero zuk epaituko nauzu, ekintzaren arabera. Zoaz, kotsola ezazu zure lehengusina; nik hilda dagoela aldarrikatuko dut... Ez dut gehiago esango: agur. (*Salen.*)

Escena segunda

VERGES

¿Están presentes todos los miembros para iniciar el proceso?

DOGBERRY

Pronto... Papel y pluma para el juez *destrucción*.

JUEZ INSTRUCTOR

¿Quiénes son los inculpados?

DOGBERRY

¿Quiénes van a ser? Somos yo y mi compañero.

VERGES

Estamos aquí para ayudar en la *destrucción* del caso.

JUEZ INSTRUCTOR

No, ¿quiénes son los inculpados que hay que interrogar? Que hable el oficial mayor.

DOGBERRY

Sí, demonios, que traigan a los *exculpados* a mi presencia.

JUEZ INSTRUCTOR

¿Cómo os llamáis?

BORACHIO

Borachio.

DOGBERRY

Por favor, escribid aquí, Borachio.

JUEZ INSTRUCTOR

¿Y vos?

CONRADO

Conrado.

DOGBERRY

Escribid aquí, Conrado. Con la C bien grande que es lo que le diferencia de ser honrado.

VERGES

¿Juráis decir la verdad, toda la verdad y nada más que la verdad?

BORACHIO y CONRADO

Sí, juramos.

DOGBERRY

Señores está probado que no sois más que unos hipócritas, si es verdad lo que nos figuramos.

JUEZ INSTRUCTOR

¿Qué contestáis en vuestra defensa?

CONRADO

Señor, hemos de decir que no somos lo que dicen.

VERGES

Este delincuente quiera dárse las de listillo, pero ya te arreglaré yo...

DOGBERRY

Se sospecha sin lugar a dudas que son las ratas más infectas de los bajos fondos de Mesina.

BORACHIO

Pues yo he de decir que no es verdad nada de lo que se nos acusa.

VERGES

¡Silencio! Es evidente que se han compinchado los dos.

DOGBERRY

¿Habéis tomado nota por escrito de lo que niegan? *(Sacando un plato y un tenedor)* Veremos si ahora lo siguen negando...

JUEZ INSTRUCTOR

Señor mayor, no es éste el mejor camino para hacerles confesar. Será preciso que llaméis al guardia de la ronda para que formule la acusación.

DOGBERRY

Sí, tenéis razón; así será mejor. Que comparezca el guardia.

Entra el guardia y se sitúa ante el tribunal.

JUEZ INSTRUCTOR ¿Nombre?

GUARDIA 1º

Gianni Verga

JUEZ INSTRUCTOR

¿Verga de Bérgamo?

DOGBERRY y VERGES

No, Verga de verga.

VERGES

¡Firme, Verga!

DOGBERRY

Siempre está usted como apocado, Verga. Con lo grande que es usted. Estírese, demonio. Créaselo. Ahora, en nombre de la justicia, le exijo que acuse a estos hombres.

GUARDIA 1º

Este hombre, señor, dijo que doña Juana, la hermanastra del príncipe, era una villana.

DOGBERRY

Escribid lo que dice. ¡Que doña Juana es una villana!

VERGES

¿Pero qué dice este pájaro?

DOGBERRY

Si no hay en toda Mesina una mujer más encantadora.

VERGES

Y la sonrisa que tiene...

DOGBERRY

¡Calumnias!

BORACHIO

Señor mayor, quiero...

DOGBERRY

¡Cállate, granuja! Y, mira, voy a decírtelo todo. Te tengo manía.

JUEZ INSTRUCTOR

Silencio, por favor. (*Al guardia*)¿Qué más habéis oído?

GUARDIA 1º

También ha dicho que recibió diez mil liras de doña Juana para acusar con falsedades a la señora Hero.

DOGBERRY

Un robo puro y simple, como nunca se ha cometido otro.

VERGES

Un robo con todas las letras. R-O-V-O.

JUEZ INSTRUCTOR

¿Qué más ha dicho, señor Verga?

GUARDIA 1º

Y que fiado de sus palabras, el conde Claudio pensaba avergonzarla ante todos los que asistiesen a la boda, y que no se casaría con ella.

VERGES

Miserables villanos.

DOGBERRY

Pillos redomados.

JUEZ INSTRUCTOR ¿Qué más?

VERGES

Abortos de la naturaleza.

DOGBERRY

Excrementos de...

JUEZ INSTRUCTOR

¡Estoy preguntado al señor Verga!

GUARDA 1º

Apunté algo más, pero no entiendo la letra.

JUEZ INSTRUCTOR

(*A los dos detenidos*) Suficiente. Esto es mucho más, señores, de lo que podéis negar. Doña Juana ha escapado en secreto esta mañana. Y Hero, tan miserablemente acusada y repudiada, ha muerto de dolor. Señor mayor, mandad que se ate a estos hombres y que se los conduzca a casa de Leonato. Yo os precederé para mostrarle el interrogatorio que hemos escrito.

DOGBERRY

Andando. Ya veremos qué se hace con vosotros.

VERGES

¡Atadles las manos!

CONRADO

¡Aparta, mequetrefe!

DOGBERRY

¿Mequetrefe un representante de la justicia? ¿Dónde está el juez *destrucción*? Que registre este *desataco* a la autoridad.

CONRADO

¡No me toquéis! Sois un asno. ¡Un asno!

DOGBERRY

¿Asno? ¿No te impone respeto mi cargo? ¿Dónde está el juez? ¡Que tiene que escribir que ha dicho que soy un asno! Señores, recordadlo todos: ¡que soy un asno! Aunque no conste por escrito, no olvidéis que soy un asno. Se te va a caer el pelo, granuja. Todos estos testigos probarán lo que has dicho. Yo soy un profesional muy competente, para tu información. Con plaza de funcionario, para tu información. Y con ahorros. Y honrado como pocos en el cuerpo. Y te voy a decir más: este enero seré presidente de la comunidad de vecinos. ¡Presidente! Lléváoslo. Asno me llama, el ladronzuelo de tres al cuarto... (*Salen.*)

ACTO QUINTO Escena primera

Ante la casa de Leonato.

Entran Leonato y Antonia.

ANTONIA

Kezka larri horrekin jarraitzen baduzu, gaixotu egingo zara, eta ez da zentzuzkoa nor bere buruari kalte egiten dion saminarean mendean egotea.

LEONATO

Mesedez, gorde aholkuak zuretzat. Bilatu ezazu bere alaba nik nirea baino gehiago maitatu duen aita bat, niri bezela zoriona betirako suntsitu zaion aita bat, eta esaiozu pazientzia izateko. Gizon hori irri egiteko, bere mina baretzeko eta halabeharraren kolpeak jasateko gauza bada, datorrela hona, eta bere eredutik ikasiko dut nik. Milesker, arreba, baina nire nahigabeek zure aholkuek baino ozenago ohiukatzen dute.

ANTONIA

Frogatuta geratzen da kontu honetan gizonak umeak bezalakoak direla.

LEONATO

Isildu zaitez, arreba, arren. Hezur haragizkoa naiz ni ere. Oraindik ez dut ezagutu hagineko mina pazientziaz eramateko gauza den filosoforik.

ANTONIA

Sikeran ez eraman zure gainean zoritxar guztiaren zama; eraman dezatela euren partea iraindu zaituzten horiek.

LEONATO

Horretan arrazoi duzu; hori egingo dut. Bihotzak diost Herori buruz esaten den guztia gezurra dela, eta Claudiok jakin beharko du, baita printzeak ere, eta nire alaba lotsarekin zikindu duten guztiek.

ANTONIA

Han datoz korrika printzea eta Claudio.

(Entran don Pedro y Claudio.)

DON PEDRO

Egun on.

CLAUDIO

Egun on bioi.

LEONATO

Entzun, jaunak...

DON PEDRO

Ez dugu astirik, Leonato.

LEONATO

Ez duzue astirik? Ondo pasa, beraz, jauna. Zer dela eta hainbeste presa orain?

DON PEDRO

Ez gurekin haserretu, agure ona.

ANTONIA

Haserretu ezkerro justizia egitea lortuko balitz, hemengo baten batek pagatuko luke.

CLAUDIO

Eta nor da iraindu zaituena?

LEONATO

Zu, zu zara iraindu nauena. Aho zikin hori!

LEONATO

Claudio, aurpegira esango dizut: hainbestearaino iraindu gaituzu ze, neure buruari zor diodan errespetua baztertuz, desafioa bota behar dizut. Nire alaba errugabea kalumniatu duzulako.

CLAUDIO

Kalumniatu?

LEONATO

Bai, kalumniatu, Claudio. Horrela esan dut eta errepikatu egingo dut.

DON PEDRO

Lasaitu zaitez, agure ona.

LEONATO

Jauna, nire hitzak frogatzeko prest nago, eta berarekin borrokatuko dut berak onartzen badu, sasoi betean dagoela eta armekin trebea eta iaioa dela dakidan arren.

CLAUDIO

Utzidazu bakean.

LEONATO

Madarikatua nire eskua elbarri baten kontra altxatuko banu. Utzidazu bakean. Nola? Nigandik ihes egin nahi duzu? Nire alaba hil duzu. Hil nazazu ni, halatan gizon bat hil duzula esatea izango duzu.

ANTONIA

Biok hilko gaitu. Baina aurrena nire kontra borroka dezala. Zatoz nire atzetik. Etortzeko esan dizut, gazte; zatoz nirekin, erakustaldi bat emango dizut.

LEONATO

Ene arreba...

ANTONIA

Lasai egon... Jainkoak daki zure alaba nola maite nuen, eta maltzur hauen erruz hil da. Zuek tximino harropuzak zarete, andrezaleak, koldarrak.

LEONATO

Antonia anaia...

ANTONIA

Egon lasai... Emakume bat naiz ni! Ondo ezagutzen ditut. Badakit zer balio duten eta zer egin dezaketen. Handiusteak dira, ahoberoak, mukizuak...

LEONATO

Antonia...

ANTONIA

Hau ez doa zurekin. Utzidazu hau nire moduan konpontzen.

DON PEDRO

Jaunak, ez da gure asmoa zuek gogaitzea, inola ere ez. Zuek bezainbeste sentitzen dut nik zure alabaren heriotza, baina nire ohoreagatik zin dagizut salaketa egiazkoa zela, eta ondo frogatuta dagoela.

LEONATO

Jauna, jauna...

DON PEDRO

Ez jarraitu; ez dizut entzun nahi.

LEONATO

Ez didazu entzun nahi? Zatoz, arreba, nik jarraituko dut. Esan behar dudana entzutea nahi dut!

ANTONIA

Eta entzungo dizute, edo zuetako baten bati damutuko zaio.

(Leonato y Antonia salen.)

DON PEDRO

Begira, han dator bilatzen ari ginen gizona.

(Entra Benedicto.)

CLAUDIO

Jauna, zer moduz?

BENEDICTO

(A don Pedro.) Egun on, jauna.

DON PEDRO

Ongi etorria, jauna. Minutu batzuk lehenago heldu bazina, liskarrean ikusiko gintuzkezu.

CLAUDIO

Agure elbarri birekin borrokan hasteko zorian egon gara.

DON PEDRO

Leonato eta bere arreba ziren. Zer uste duzu zuk?

BENEDICTO

Borroka desorekatua dagoenean, ezin daiteke ausardia erakutsi. Baina ni zuen bila nentorren.

DON PEDRO

Gu ere ibili gara hara eta hona zure bila, oso triste gaudelako eta zinez nahi genukeelako hau guztiaz ahaztu.

CLAUDIO

Tira, alaitu gaitzazu pixka bat zure zorrotasunarekin.

BENEDICTO

Nire zorrotzasun guztia bala batean kabitzen da une honetan. Nahi duzu ikusi?

CLAUDIO

Atera ezazu nahi duzuna, dibertitu egingo gara eta.

DON PEDRO

(A Claudio.) Senak ez banau engainatzen, zurbil dagoela esango nuke. Zer duzu? Gaixo zaude, ala haserre?

CLAUDIO

Eutsi, gizona, eutsi! Buruhaustek katuak hiltzen dituzte, baina zuk buruhaustek hiltzeko bezainbesteko kemenak duzu.

DON PEDRO

Gero eta zurbilago jartzen ari dela dirudi. Benetan haserre dagoela uste dut.

CLAUDIO

Haserre badago, bilatuko du baretzeko modua.

BENEDICTO

Zurekin bakarrik hitz egin dezaket?

CLAUDIO

Alajainkoa, honek desafio bat dirudi.

BENEDICTO

(Aparte a Claudio.) Doilorra zara. Eta ez pentsa txantxetan ari naizenik. Eta frogatuko dizut nahi duzun tokian eta unean. Ez baduzu desafioa onartzen, zure koldarkeria aldarrikatuko dut lau haizeetara. Heroren heriotza zure gainean eroriko da bere zama guztiarekin. Erantzun esan dizudanari.

CLAUDIO

Desafioa onartzen dut, baina bankete oparo baten mahaiaren inguruan izango da.

BENEDICTO

Jauna, txantxetan hartzen ari zarela dirudi.

DON PEDRO

Lehengo egunean Beatrizek ordubete eman zuen zure bertuteen azterketa zehatza egiten. Eta bukaeran, hasperen bat eginez, Italiako gizonik perfektoena zarela gehitu zuen.

CLAUDIO

Gero negarrez hasi zen, malkoei ezin eutsirik.

DON PEDRO

Agurearen alabak kontatu zigun dena. Noiz ipini ahal izango ditugu zezen basatiaren adarrak Benedicto zentzudunaren buruan?

CLAUDIO

Bai, eta orduan iragarki bat jarriko diogu esanez: “Lehen maitasunaren etsaia, Orain zorioneko ezkongaiia”

BENEDICTO

(A Claudio.) Badakizu zer esan dizudan, gazte; ondo segi. Orain utziko zaituztet, zuen umore onarekin jarrai dezazuen. *(A Don Pedro.)* Jauna, zure adeitasuna eskertzen dizut, orain irten naiteke? Zure arreba ordea, sasikoa, Mesinatik alde egin du. Zuek hirurok emakume zintzo eta errugabe baten heriotza eragin duzue. Mukizu horri dagokionez, argituko ditugu gure kontuak. Jainkoaren bakea egon bedi guztiekin.

DON PEDRO

Lehor dago.

CLAUDIO

Oso lehor, bai, baina seguru dela Beatrizenganako maitasunagatik.

DON PEDRO

Duelo baterako desafiaoa bota dizu?

CLAUDIO

Bai, formaltasun osoaz gainera.

DON PEDRO

Bah, bah, uztagun hori, ez dezagun aurrera egin... Ez diozu entzun nire arrebak ihes egin duela?

(Entran Dogberry, Verges y la guardia que lleva a Borachio y a Borachio.)

DON PEDRO

Zer da hau? Nire arrebaren zerbitzarietako bi atxiloturik? Eta horietako bat Borachio da!

CLAUDIO

Galdetu zergatik dauden preso, jauna.

DON PEDRO

Guardias, ¿qué delito han cometido estos dos hombres?

DOGBERRY

Señor, han dicho cosas falsas y, además, se han permitido mentir. En segundo lugar, son unos calumniadores, y en sexto, y por último, son unos embusteros; y para terminar, han faltado a la verdad.

CLAUDIO

Ezin daiteke garbiago hitz egin.

CONRADO

Alabado príncipe, no permitáis que sigamos en manos de estos hombres.

BORACHIO

Prefiero confesar y que el conde Claudio me mate. Abusé de vuestra buena fe y engañé hasta a vuestros ojos. Y lo que no supistéis descubrir, lo han logrado estos imbéciles. Anoche oyeron cómo confesaba a este hombre que Doña Juana, vuestro hermana, me había incitado a calumniar a la señora Hero. En realidad, visteis cómo yo hacía la corte a Margarita, que llevaba los vestidos de Hero. Todo el mal cometido está escrito en el atestado del juez de instrucción. Sólo deseo que se me castigue tal cual merezco.

DON PEDRO

(*A Claudio.*) Hitz hauek ez al dira odolean sartzen zaizun burdin gori bat?

CLAUDIO

Garraztasunaren kaliza edaten dut hau entzunda.

DON PEDRO

(*A Borachio.*) ¿Fue mi hermana quien te empujó a obrar así?

BORACHIO

Sí, y me pagó muy bien para que lo hiciera.

DON PEDRO

Traiziorako egina eta osatua dago emakume hori. Eta doilorkeria burutu ondoren ihes egin du!

CLAUDIO

Nire Hero maitea! Une honetan zutaz maitemindu nintzenean ikusten nizun garbitasun berarekin ikusten zaitut.

DOGBERRY

(*A los guardias.*) Señores, yo quisiera denunciar en tiempo y lugar oportuno que ha dicho que soy un asno.

VERGES

Aquí viene el señor Leonato con el atestado del juez *destrucción*.

(*Entra Leonato acompañado de Antonia.*)

LEONATO

¿Dónde está el miserable? ¿Cuál de éstos es?

BORACHIO

Si queréis saber cuál de los dos os ha ultrajado, miradme sólo a mí.

LEONATO

¿Tú eres el miserable esclavo que con el hedor de tus palabras llevaste a la muerte a mi inocente hija?

BORACHIO

Sí, fui yo, y yo sólo soy el culpable.

LEONATO

No, miserable, no lo hiciste solo. Otros colaboraron. Printzea, nire alabaren heriotzagatik eskerrak eman behar dizkizut. Inskriba ezazu balentria hau zure ekintza heroikoen artean.

CLAUDIO

Oh, jauna, ez dakit nola eskatu zure urrikalmendua eta barkamena. Baina orain zurea da hitza. Aukeratu zuk zeuk mendeku bidea. Jarri nire okerrari zure irudimenak proposatzen dizun zigorra. Hala ere, gogoratu engainu baten biktima izan naizelako jokatu dudala gaizki.

DON PEDRO

Eta nire arimaren salbazioagatik diot, niri gauza bera gertatu zitzaidala. Hala ere, gizon ona, ezarriko didazun zigorra betetzeko prest nago, gogorrena bada ere.

LEONATO

Ezin zaituztet behartu nire alaba bizirik bueltatzera, ezinezkoa delako. Ordea, Mesinako herri osoan nire alaba errugabe zelarik hil zela aldarrikatzeko eskatuko dizuet. Eta bereganako maitasunik oraindik sentitzen baduzue, idatzi ezazue hil gorazarre bat, bere izena ohoretzeko. Bihar goizean nire etxetik pasatuko zarete, eta ni zure aitaxe izatera iritsi ez banaiz ere, zure osaba izango naiz. Jakin ezazu nire arrebak alaba bat duela, nire alaba zenaren itxura berdina duena, nire ondasun guztien oinordekoa. Emaiozu berari bere lehengusinari emango zeniokeen tituloa, eta horrela baretuko da nire baitan mendekurako grina.

CLAUDIO

Oh, jaun noblea!, zure zintzotasunak malkoz betetzen ditu nire begiak. Onartzen dut zure eskaintza, eta jakin ezazu gaurtik aurrera Claudio gaixoa zure esanetara egongo dela.

LEONATO

Bihar etorriko zara, beraz. Orain utziko zaitut. A este malvado le haremos confesar ante Margarita, pues me figuro que, comprada por vuestro hermano, tomó parte en la infamia.

BORACHIO

¡No! Por la salvación de mi alma os juro que ella no sabía nada.

DOGBERRY

Además de lo que se ha dicho, aunque no consta en blanco y negro, he de añadir que el inculpado me ha llamado asno. Os recuerdo que lo recordéis cuando se le ponga el castigo.

LEONATO

Te doy las gracias por tu trabajo y buen celo.

DOGBERRY

Dios recompense vuestra generosidad.

(Dogberry y Verges salen.)

LEONATO

Jaunak, bihar goizerarte. Agur.

ANTONIA

Agur, jaunak; bihar elkartuko gara.

DON PEDRO
Ez dugu huts egingo.

CLAUDIO
Gau honetan Heroren oroimenez negar egin nahi dut.
(*Don Pedro y Claudio salen.*)

LEONATO
(*A los guardias de la ronda.*) Llevaos a estos hombres. Hemos de interrogar a Margarita y averiguar cómo empezó su amistad con este mal hombre. (*Salen.*)

Escena segunda

BENEDICTO
Mesedez, Margarita andere maitea, Beatrizekin hitz egin nahi dut. Zinez eskertuko dizut laguntzen badidazu.

MARGARITA
Eta zuk orduan, soneto bat idatziko didazu, nire edertasunaren laudoria eginez?

BENEDICTO
Bai, Margarita, benetan merezi duzu eta, eta idazkeraren maila hain altua izango da ze gaineratik ez da egongo inongo gizonen eskriburik.

MARGARITA
Nola? Sekula ez dut gizon bat izango nire gainean? Orduan, azpian geratu beharko da beti?

BENEDICTO
Galgo baten ahoaren tamainuko ingenioa daukazu, aidean harrapatzen duzu dena.

MARGARITA
Zurea, aldiz, eskrimako florete bat bezain kamustuta dago, ikutu egiten du baina zauritu ez.

BENEDICTO
Nire ingenioa, Margarita, bihotz oneko gizon batena da, andere bat zauritu nahi ez duena; baina amore ematen dut, irabazi egin duzu, baina mesedez, joan Beatrizen bila.

(*Margarita sale.*)

BENEDICTO
(*Se pone a leer.*)

Soldadu nintzen, orain
poeta, Desio zaitut nik,
desio, Nola umeak kroketa.

Ez dago liburuetan maitasunak ni baino sakonago zauritu duen pertsonairik, eta ezin dut bertsotan paratu. Saiatu arren ez dut errima egokia aurkitzen: bihotza... gorotza; taupada... purrustada... Ez, ez naiz poeta izateko jaio.

(Entra Beatriz.)

Nire Beatriz ederra, orain niregana zatoz deitzen dizudanean?

BEATRIZ

Eskatu didazulako etorri naiz, eta eskatzen didazunean joango naiz.

BENEDICTO

Geratu zaitetz ba, eta esango dizut noiz joan.

BEATRIZ

“Joan” esan duzu jada; beraz, banoa. Agur. Dena den, joan esan baino lehen esan duzun “geratu zaitetz” horrekin geratuko naiz, zertara etorri naizen ez dakidan arren. Ah, bai, jakin behar dut zer gertatu den zu eta Claudioren artean.

BENEDICTO

Hitz garratzak besterik ez ziren egon, eta ordainean, utzidazu musu bat ematen.

BEATRIZ

Hitz garratzak aire garratza baino ez da; eta aire garratza, arnas garratza ez besterik; eta arnas garratza ez da inoren gustokoa. Horregatik banoa zure musurik gabe.

BENEDICTO

Hain zara bizia eta zorrotza ezen, hitzen esanahia zeharo iraultzen duzun, baina nik azalduko dizut dena garbi: Claudiok nire desafioa onartu du, eta erantzuten ez badu laster aldarrikatuko dut bere koldarkeria. Eta orain, esaidazu mesedez nire akatsetatik zein gustatu zitzaizun lehena.

BEATRIZ

Zure akatsak, denak orokorrean, hain daude modu baldarrean banatuta ze, haien artean ez da bertuterik kabitzen. Baina hitz egin dezagun nitaz. Nire dohabetatik, zein gustatu zitzaizun gehien, maitasunez sufritzeraino?

BENEDICTO

Maitasunez sufritzea? Oso esamolde zehatza da. Bai, hala da, nik maitasunaz sufritzen dut, nire borondatearen kontra maite zaitudalako.

BEATRIZ

Nire maitasunaren erruz zure bihotzak sufritzen badu, nik neurea sufriaraziko dut zureagatik.

BENEDICTO

Nahitaezkoa da elkar goxoki maitatzea, inteligenteegiak gara biok.

BEATRIZ

Gara? Zu barne? Hogei gizon inteligenteetatik batek ere ez du bere burua goraiapatuko.

BENEDICTO

Oker zabilta. Gaur egun zentzuzkoena nork bere bertuteak aladarrikatzea da, nik neureekin egiten dudana bezela. Horregatik goraiatzen dut neure burua, errez frogatu bait dezaket hainbeste merezi duela. Baina esaidazu, nola dago zure lehengusina?

BEATRIZ

Biziki gaizki.

BENEDICTO

Eta zu nola zaude?

BEATRIZ

Biziki gaizki neu ere.

BENEDICTO

Jaungoikoa beneratu, maita nazazu eta osatu zaituz. Orain utziko zaitut, norbait zure bila datorrela iruditu zait, eta presaka dator.

(Entra Úrsula.)

ÚRSULA

Andrea, zure osabarengana joan behar duzu. Etxean denak aztoratuta dabilta. Frogatuta geratu da Hero anderea errugabea dela, eta faltsukeriekin salatua izan dela. Printzea era Claudio engainatuak izan dira, eta Doña Juana, guztiaren erruduna, ihesean irten da. Etorri segituan, mesedez.

BEATRIZ

Jauna, albiste hauen berri jakin nahi duzu zuk ere?

BENEDICTO

Zure bihotzean bizi, zure besoetan hil eta zure begietan lurperatua izan nahi dut. Zurekin noa zure osaba ikustera. *(Salen.)*

Escena tercera

En el recinto de la iglesia

Entran Don Pedro, Claudio, Baltasar, y tres o cuatro acompañantes con cirios, todos en fúnebre procesión.

CLAUDIO

Hau al da Leonatoren mausoleoa?

UN SEÑOR

Bai, jauna.

CLAUDIO

EPITAFIO

*Andere prestu, duina, erabat garbia,
zoriontsu izateko mundura etorria,
azal eta bihotzez erabat zuria,
bortxaz galdu zenuen betiko zoria.*

*Ez zenuen sekula txarkeria sumatu
eta hala ere gaiztoek zintuzten akatu,
erru gabea engainuz errudun
salatuz. Ez zintugun lagundu, andere,
barkatu!*

*Zoritxarreko aingeru orbanik gabea,
irekita daukazu zeruko atea.
Bizitzan izan duzu fortuna dorpea,
heriotzean gozatu zintzoen ospea.*

Empieza la música y se cantan los himnos con solemnidad.

DON PEDRO

*Anderea barkatu gure uzurreria,
Jainkoaren zigorra dugu merezia.
Aldarrika dezagun, ezagun dadila,
duina zarela eta gogoangarria.
Jaunak egingo al dizu zeruan kabia,
aingeru on guztien erdian jarria. Gu
hemen geratzen gara, oinaze gorrian, zu hor
goian, ostera, betiko glorian.*

CLAUDIO

Orain hartu atsedean bakean, eta zure gorpuaren aurrean zin dagit urtero gaur bezelako egunean, hona etorriko naizela, zure gomutan. Agur, Hero.

DON PEDRO

Jaunak, argiak itzali eta joan gaitezen.

CLAUDIO

Goazen norbere etxera.

DON PEDRO

Goazen hemendik. Beste jantziak ipini eta Leonatoren etxera joango gara.

CLAUDIO

Ezkontzak zoriona ekarri dezala, bilkura honek dolua ekarri digun bezela. *(Salen.)*

Escena cuarta

Una sala de la casa de Leonato.

Entran Leonato, Antonia, Benedicto, Beatriz, Margarita, Úrsula, Fray Francisco y Hero.

FRAY FRANCISCO

Ez nizun nik esan errugabea zela?

LEONATO

Printzea eta Claudio ere errugabeak dira. Hero salatu zuten, engainu batean nahastu zituztelako, honezkero jakingo zenuen horren berri. Margaritak aldiz badu erantzukizunik...

ANTONIA

Baina galdeketagatik jakin dugunez, berak ez zekien azpijoko batean parte hartzen ari zenik. Dena konpondu da eta amaiera zoriontsu honek poztu egiten nau.

BENEDICTO

Baita ni ere, hola bukatu ez balitz, Claudioren kontra dueloan borrokatu beharko nukeelako.

LEONATO

Ene alaba, eta zuek ere, andereñoak, zoazte zuen geletara, eta etortzeko deitzen dizuedanean, etorri denak mozorroa jantzita. Printzea eta Claudio hemen egotekoak dira adostutako orduan. (*Salen las damas.*) Zu, ene arreba, badakizu zer egin behar duzun. Nire alabaren ama izateko itxurak egin, eta Claudio gazteari emaztetzat eskeini.

ANTONIA

Nire papera beteko dut behar den seriotasun osoarekin.

BENEDICTO

Abade jauna, zure borondate onaz abusatu behar dudala uste dut.

FRAY FRANCISCO

Zertan lagundu zaitzaket, jauna?

BENEDICTO

Zoriontasunaren bidean ipintzen edo galbidearen atek irekitzen...; bietatik bat. Leonato jauna, nire jaun ona, hauxe da egia: zure ilobak begirunez begiratzen dit.

LEONATO

Nire alabak irakatsi dio horrela begiratzen, hauxe da egia osoa.

BENEDICTO

Eta nik, trukean, Beatrizi maitasunezko begiekin begiratzen diot.

LEONATO

Ba zure begiratzeko modu hori, oker ez banago, Claudio, Printzea eta niri zor diguzu.

BENEDICTO

Ez ditut zure hitzak ulertzen, jauna, nahasi xamarrak dirudite. Baina nire nahia zera da, eskatu behar dizudana oniriztea, alegia, Beatriz eta biok ezkontza santuaren bidez elkartzea... hauxe da abade on hau hemen egotearen arrazoia.

LEONATO

Nire bihotza pozten da zure nahia betetzeko baimena ematean.

FRAY FRANCISCO

Prest nago nire betebeharra egiteko, eta eskatu didazun honetan laguntzeko. Badatoz Printzea eta Claudio.

(Entran don Pedro, Claudio y algunos de sus acompañantes.)

DON PEDRO

Egun on guztiei.

LEONATO

Egun on, printzea; egun on, Claudio. Zai gaude. *(A Claudio.)* Onartuko duzu gogoz nire arrebaren alabarekin ezkontzea?

CLAUDIO

Hitza beteko dut, andregai zantarra bada ere.

LEONATO

(A su hermano.) Arreba, esaiozu etortzeko; abadeak dio prest dagoela jada.

(Antonia sale y vuelve a entrar con un grupo de señoras enmascaradas.)

CLAUDIO

Zein da emaztetzat hartu behar dudana dama?

ANTONIA

Hemen daukazu eta bere eskua eskeintzen dizut.

CLAUDIO

Nirea da? Eder hori, utzi zure aurpegia ikusten.

ANTONIA

Ez, ez duzu ikusiko abade honen aurrean bere eskua hartu eta berarekin ezkontzeko hitza eman arte.

CLAUDIO

(A la enmascarada.) Eman eskua; zure senarra izango naiz abade santu honen aurrean, zuk onartzen banauzu. *(Hero se quita la máscara.)* Hau beste Hero bat da!

HERO

Beste bat naiz, zinez... Irain lotsagabe batek hil zuen Hero bat naiz, baina bizirik jarraitzen dut, eta seguru nago bizirik egoteaz, birgina izateaz seguru nagoen bezela.

DON PEDRO

Eta beste Hero? Hil zen Hero hura?

LEONATO

Bere desondra bizirik egon zen bitartean soilik egon zen hilda, jauna.

FRAY FRANCISCO

Nik argituko dut zuen ezustea, eta zalantza guztiak uxatuko ditut ezkontza zeremonia santua bukatu orduko. Bitartean, onar dezagun apaltasunez gertaturiko guztia. Eta goazen, astirik galdu gabe, kaperara.

BENEDICTO

Astiro, astiro, abade jauna. Nor da zuetatik Beatriz?

BEATRIZ

(Quitándose la máscara) Beatriz dut izena. Zer nahi duzu nigandik?

BENEDICTO

Maite nauzun galdetu nahi nizun.

BEATRIZ

Argi daukat ezetz, ez komeni dena baino gehiago, behintzat.

BENEDICTO

Orduan, printzea, Claudio eta zure osaba oker dabilta, haiek maite nauzula esan bait didate.

BEATRIZ

Zuk maite al nauzu?

BENEDICTO

Egia esan, ez. Ez komeni dena baino gehiago.

BEATRIZ

Orduan, Margarita, Úrsula eta nire lehengusina oker dabilta, haiek maite nauzula esan bait zidaten.

BENEDICTO

Haiek ere esan zidaten niganako maitasunez gaixo zinela.

BEATRIZ

Niri ere esan zidaten niganako maitasunez ia hilda zaudela.

BENEDICTO

Ez da inolaz ere egia. Beraz, ez nauzu maite?

BEATRIZ

Egia esan behar badut, ez! Baina zure interesa aintzat hartzen dut.

LEONATO

Iloba, niretzako ez dago dudarik, jaun honekin maiteminduta zaude.

CLAUDIO

Eta jaunak ere anderea maite duelakoan nago ni, hemen bait daukat berak idatziriko paper bat, erdipurdiko soneto bat, bere irudimenak sortua, Beatriz-i eskeinia.

HERO

Eta nik badaukat beste bat, nire lehengusinarene eskuz idatzia, nik zorrotik atera niona, Benedictorenganako maitasuna aitortuz.

BENEDICTO

Honek magiaren artea dirudi. Gure eskuek, gure bihotzak sentitzen duena berresten dute. Zatoz, zurea izan nahi dut, baina argitzen gaituen argipean adierazi nahi dut soilik cupidagatik maite zaitudala.

BEATRIZ

Neuk ere ezin zaitut arbuiatu, nahiz eta egun honetako argiagatik esan behar dudana, zure nahia beteko badut, zure bizitza salbatzeagatik egingo dudala, ondo bait dakit pixkanaka nigatik agortzen ari zarela.

BENEDICTO

Isildu...; nik itxiko dizut ahoa.

(La coge y la besa.)

DON PEDRO

Benedicto, jaun ezkondua, zer moduz zaude?

DON PEDRO (?) *(Bendiktok emandako gutuntxo bat irakurriz)*

Kaixo guztioi, banekien galdera hau egingo zenidatela. Nire kontra ziriak botatzeak eta burlak egiteak gogaitzen nauela uste al duzue? Ezkontzeagatik zoriontsua naizenez, bost ardua zait munduak nitaz esan dezakeena, ezta nik ezkontzearen kontra esan dudana. Beraz egin nahi beste barre, zentzuzkoa baita pertsonak pentsamoldez aldatzea. Eta honenbestez nahikoa esan dudala uste dut. Orain hasi dadila musika, xirulak entzun daitezela.